

# K...eta Kitto!

2017-VII-14

1.024 zkia.

## 20 urte astekaria sanferminetan lekuko

**%30** des  
kon  
tua

EGUZKITAKO BETAURREKOEN  
bilduma BERRI GUZTIETAN

[www.multioplicasgipuzkoa.com](http://www.multioplicasgipuzkoa.com)

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • ERRETERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA  
Baliozgarria 2017/09/15 arte, 50€-tik gorako betaurrekoetan. Kontsulta itzazu zure optikan kanpalnaren ezaugarriak.  
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabilii.

Gure betaurreko  
guztiak bilduma  
berrietakoak dira



Bidebarrieta, 2  
Tel.: 943 20 05 22  
EIBAR

**MULTIÓPTICAS**  
lehen zerbizu optikoetan

# gremioen gida



943-206776



## ANTENAK

### BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak antenak

Bidebarrieta, 37  
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08  
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50  
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

943 530 356  
688 674 242  
669 934 964

### electricidad iparelek s.l.

INSTALAZIOAK ETA  
MANTENIMENDUA

iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com



TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

610 532 922

## IGELTSEROAK



Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza

Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobez  
goza dezazun

Azitin Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
www.irazabal.net

## ARKITEKTOAK

olatz etxeberria martinez ARKITEKTOA  
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberria

arkitektura, hirigintza eta peritazioak  
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea  
Tel/Fax 943 70 21 12

www.arquitectura-ei.com



## ERAIKINEN MANTENUA

### I.T.E.

INSPECCION  
TECNICA DE  
EDIFICIOS



ERAIKINEN  
IKUSKAPEN  
TEKNIKOA

### E.I.T.

info@ajtoficina.com tlf. 943 80 18 30

AJT zihurtasuna S.L.P.  
Barrena, 6 - behea ezk.

## KRISTALAK



TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com

ERAKUSKETA

eta faxa: 943 203 903

Arikixaneko Zubian

## AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea

Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ERREFORMAK

### ESTUDIOS ARRILLAGA

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-

605 713 168

943 744 019

## GARBIKETAK

### Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie  
mota guztietako  
garbiketa eta  
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082

Mobila 688 609 171

www.multiservicioseibar.com Barrena, 21-1.F



## ELEKTRIZITATEA

### egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac  
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62

630 95 73 45

943 20 06 97



### TREJO GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta  
mantenimendua

## PINTURAK

### baglietto

PINTOREAK

Zoru mota guztiak  
Pinturak  
Dekorazioa

Errebal, 21

Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com



Sostoa, 16 ac behea

Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900

Mobila. 656 784 396

### VICTOR GONZALEZ FRAIZ

PINTURA  
OROKORREAN

BARNE eta KANPOKO  
dekorazioa eta pintura,  
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,  
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-  
696-565394 / 943-030540  
victor-fraiz@hotmail.com



**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkarte.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,  
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpuru.

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA  
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**  
Maialen Belaustegi  
eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Azitaingo Izkua.

**BANAKETA-ARDURADUNA:**  
Ainhua Luz.

**TIRADA:** 8.100 ale.

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

# eskutitzak

– Taberna itxita, bulegoa zabalik –

Ohar honen bitartez bazkide zareten eta ez zareten herritar guztioi jakinarazi nahi dizuegu gure elkarteko taberna uda garai honetan, irailaren erdi aldera arte, itxita egongo dela.

Batzordeetako aktibitateek eta bulegoko lanek ez dute etenik izango eta, horregatik, zerbait nahi baduzu bertan aurkituko gaituzu. Mendi ba-

tzordekoak martitzen eta eguenetan izango gara, 19:30etik 20:30era; Xakekoak, barixakuetan, 18:30etik aurrera; eta Argazkilaritzakoak, martitzenetan, 19:30etik aurrera. Gainontzeko batzordekoekin kontaktatzeko, ohiko aktibitate guzuetan.

**Eibarko Klub Deportiboa**

– Eskerrik asko –

Agur esateko momentua iritsi da, atea itxi eta bide berri eta ziur nago zoragarri bati ongi etorrixa emoteko momentua. Horrelakoetan denok daukagu beldur eta zalantzak bidelagun, baina zer da hori zuentzat?

Orain dela urte batzuk Klub Deportiboko taberna hartu eta abentura berri baten murgildu zineten. Zuek ere ez zenuten pentsatzen denborarekin taberna hori eibartar askoren etxe bihurtuko zenik, gure bilgune, nire kabi.

Nola ahaztu zuen txaka pintxoak, kroketak, albondiga eta patata bokatak, txapiroak, gazta tar-

ta... eta astebururo tripa bete dizkiguten hainbat eta hainbat plater.

Baina, batez ere, nola ahaztu kirolez bustita dauden pareta haien artean izandako elkarrizketak, sekretuak, irribarreak, dantzak, besarkadak, malko eta kantak... horiek baitira benetan sabe-la eta bihotza asetzen dutenak.

Zuek lortu duzue hori dena, lanarekin eta, batez ere, maitasunarekin. Bezero izatetik, lagun izatera.

Eskerrik asko, Ekipo, maitte zaittuegu.

M.O.

## Erredakzioaren charra

Datorren barixakuan, hilaren 21ean, ikasturteko azken alea kaleratuko dugu. Kontuan hartu, beraz, zorion-agurrak eta bestelako edozein informazio kaleratu nahi baduzue.

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LOTSARIXA.**- Lotsa. "Makiña bat lotsari emondakua gurasueri!".

**LOTSARIXA HARTU.**- Lotsaren lotsaz gorritu. "Arlote aren itxuriakin, lotsarixa artu neban".

## astean esanak

"Zer egin dugu gaizki Hegoaldeko hiriburuetan jaietako kontzertu hauek merezi izateko? Herriko festak dira eta, lokalismo hutsagatik bada ere, gidoiak eskatzen du zaharmintzen hasita dagoen bertako artistaren bati plaza ematea: Donostiak La Oreja de Van Gogh-ekin bete du baldintza, Bilbok El Consorcioekin -zaharmintzen hasita dagoela eskuzabal samarra ere bada- eta Iruñeak Serafin Zubirirekin. Hiri Buruzagian El Columpio Asesino ere kartelean jarrita berritasuna gehitu diotela pentsatzen baduzu, begiratu

zein mendetan hasi zen talde hori jotzen. Gainera, beti sartu behar dira ibilbide luze samarrek eta definitiboki hondoa jotako artista espainiarrak ere eta 2017ko jaietan espezie hori asko ugaritu da: Chenoa eta Los Secretos Donostian, Amaral eta Antonio Orozco Bilbon, M-Clan Gasteizen... Eta eskaintza oso zaharrunoa geratzen ari denez, konpentsatzeko iazko hit bat jotzeko prest dagoen norbait. Aurtan Morat kolonbiarrek betekote dute funtzio hori Gasteizen eta Donostian: 2016an *Como te atreves*-ekin belarriak odolatan utzi zizkiguten. Ia egina dago, falta den bakarra da tronpetismo pixka bat -Vendetta Iruñean, En Tol Sarmiento Gasteizen- eta rumba ere

bai, udako beroari aurre egiteko ondo baitator gitarra bentiladore baten gisa jotzea -Los Manolos Donostian, agian Ernesto Gasco zinegotziak lagunduta; Gipsy Kings Iruñean-. 'Baina itxaron, ez itxi kartela: euskaldunak haserretuko zaizkigu' dio teknikari batek. 'Egia', erantzun dio zinegotziak. 'Benga, azkar, begiratu nork ekar dezakeen jende pixka bat euskaraz kantatuz, baina ez konplikatuz gehiegi'. Emaizta: Zea Mays lau hiriburutatik hirutan -Bilbo, Iruñea, Gasteiz- eta Gozategi lautik bitan -Donostia, Iruñea-. Panorama hori izanda, bakarrik herri mugimenduen jai-esparruetako programazioak obratu dezake mirakulua" (GORKA BEREZIARTUA, KAZETARIA)



ASIER EZENDARRO

## Leopoldo

Leopoldo deitzearen garrantzia. Leopoldo Lopez esan nahi dut. Espainiako politikari gehienek bere babes osoa erakutsi diote Venezuelako politikariari eta telebistek, egunkariak eta kazetari gehienek goraiatu egin dute "demokraziaren aldeko borroka" egiteagatik. Hor ibili dira Felipe Gonzalez eta Alberto Ruiz Gallardon Venezuelako oposizio politikoaren abokatu lana egiten eta hemen, Euskal Herrian, Iñaki Anasagasti jeltzalea gobernu bolibarianoaren aurka manifestazioak antolatzen. 1999ko azaroaren 18an, arratsaldeko 21:30ean, Iñigo Egiluz euskal kooperantea, Jorge Luis Mazo apaiza eta Rafael Gomez kolonbiar kooperantea kanoa batean zihoazen, Atrato ibaia zeharkatzen. Kolonbiako eskualde horretako indigenei eta babesgabeko jendeari laguntza ematen zioten hirurek. Bapatean paramilitarren eraso jasan zuten: Iñigo eta Jorge Luis hil egin zituzten, euren bizia emateko txiroen eta pobreen alde. Ez ditut ikusi nik PPko eta PSOEko buruzagiak Egiluz eta Mazoren oroimenik eta omenaldirik egiten. Eta 2001eko abuztuaren 18ko gauean Jorge Adolfo Freyter Romero 51 urteko abokatu hil zuten paramilitarrek, Jorge Freyter nire lagunaren aita. Baina orduan ere ez nuen entzun Espainiako komunikabideetan ezer hilketa horri buruz. Eta nor da, orduan, Leopoldo Lopez famatua Espainiako klase politikoan hainbeste defendatzaile izateko? Lopez jauna Venezuelako familia aberatseneetakoaren semea da. Estatu Batuetan egin zituen Ekonomia ikasketak, gaztetatik parte hartu du ultraeskuindar erakundeetan eta Estatu Batuetako errepublikar alderdiaren politikari batzuekin harreman estua landu du. 2002. urtean Hugo Chavezen aurkako estatu kolpearen aldekoa izan zen. Orain arte "Guarimbas" edo talde armatuak babestu ditu Caracaseko kaleak sutan jartzeko eta gobernu iraultzailea bere lekutik kentzeko. Leopoldo deitzearen garrantzia.

## 25 urte dittuan danborradari omenaldixa egin zetsen Amañako jaixetan

Aurreko asteburuan martxa betian ospatu zittuen jaixak Amañan. Nagusixen danborradiak aurten 25 urte bete dittuala eta, barixakuan jaixeri hasieria emoteko txupinazua Jesus Mari Olmedo "Kata", Jose Luis Calle "Mariatxi" eta Luis Alberto Narbaizak osatzen daben hirukotiak bota eban, hiru horrek diralako danborradaren bultzatzaile nagusixak.



Hortik aurrera jaixak eztanda egin eban, domekara arte. Halanda be, gaur arte ez dabe jaixetako programia zihero agurtu, gaur egingo diralako jubilaundako bazkaria eta bertso-afarixa, Amaña SCR elkarte gastronomikuan, Sustrai Kolina eta Onintza Enbeita bertsolarixekin.

asteko  
**268.859**  
datua

*euro, aurrekontuaren %1 (hartutako konpromixuari jarraituta), destinatuko dau Udalak munduko beste herrialdieri laguntzeko. Naziñoarteko laguntasun horrekin, herrialde txiroeneri laguntziaz gain, gizartiak aldatzeko dakan premiñarekin konzienziatzia billatzen dabe. Urtiak dira herriko hainbat kooperante beste herrialdetan laguntzen dabilzala.*

## Energixa barriztagarrixak jendiari gerturatzeko erakusketia egon zan

Aurreko zapatuan energixa barriztagarrixetan oiñarritutako teknologixia bertatik bertara ezagutzeko aukeria eskindu eben Untzagan, Eibarko Ingenieritza Tekniko Industrialeko Unibertsitate Eskolaren eskutik goiz osuan martxan egon zan erakusketari esker. Ekaiñian izan zan Eguzkixaren Nazioarteko Egunaren harira prestatu eben ekitaldixan, bestiak beste, eguzkixak emoten daben energixari esker dabillen sukaldia, Stirling eguzki-motorra, eguzki-auto elektrikua, eguzki-xafla batek sortutako hidrogenoz elikatzen dan automobililla eta beste hainbat erakutsi zittuen.



Maialen Belaustegi





## Asteburu betia San Kristobalگو jaixetan

Aurrekuan Amañako jaixak ospatzen ibilli eta gero, asteburu honetan Sankristobalگو jaixen txanda izango da. Jai batzordeko kidiak aurreko astian, barixakuan aurkeztu eben programia, Otarra alkartian, alderdi guztietako udal ordezkariak lagunduta. Berez, programako ekitaldi gehienak gaurtik domekara bittartian izango dira, baiña aurretik be jokatu dittue txapelketa batzuk: tute txapelketa aurreko zapatuan jokatu zan auzoko tabernetan eta atzo, barriz, futbolin eta igel-toka txapelketak, Alkorta eta Xania tabernetan. Urteroko moduan, egitaraua antolatzeke orduan Lambretta Klubarekin alkarlanian jardun dabe.

Jaixen hasierako txupinazua gaur 19:00etan botako dabe eta, jarraixan, urteroko martxan Leioatik etorriko dan Orkresta taldiak bere musikarekin girotuko dabe auzoko kalia. Gabian, barriz, heavy

estiloko musikia izango da protagonista, Full Metal Band eta Deaf Leopard taldiak emongo daben kontzertuetan. Zapatuan, barriz, goizetik hasiko dira ekitaldixak eta, umiendako joko eta bestelakuekin batera, honezkero klasikua dan Lambretta motoren XIV. Igoeriak beteko dabe goiza. Eta arratsaldian, bestiak beste, Mariachi Dominguez taldekuak kalejiran ibilliko dira eta gabian Trio Medianoche eta Lys Pardoren kontzertuak hartuko dattu plazak. Jaixetako azken egunian paella txapelketa jokatuko dabe eguardixan eta arratsaldian, barriz, Gorixoren eskutik zezentxo eta ponyak egongo dira eta, jarraixan, lehiaketa diferentietan parte hartu daben umieri sarixak banatuko detsez. Eta jaixen amaierako traka bota aurretik, DJ Arabaren musikia girotuko daben festa ospatuko dabe, 19:30xetatik aurrera.

## autuan



### HONDAKIÑAK MURRIZTEKO GIDA

**Debabarreneko Mankomunitateak gida bat emon dau argitara, birziklatze kontuetan herritarrak euki leikiezen zalantzak argitzen lagundu eta, holan, birziklatziari lotutako emaitzak hobetzia lortzeko asmuarekin. 34.000 ale argitaratu dittue eta Debabarreneko herri guztietan banatzeko asmua dake. Gidan jasota dagan informaziñua Mankomunitatearen webgunian eta mugikorretan erabiltzeko prestatu daben aplikaziñuan be konsultatzeke moduan egongo da. Birziklatze kontuetan, gure eskualdian %50 inguruan gabiltza, baiña hori hobetu leikiala pentsatzen dabe arduradunak.**



**Funeraria-Ehortzetxe**  
**Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b>  <b>Funeuskadi Eibar:</b>                  Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b>  <b>SIGMA Industrialdea</b>                  (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p> <p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p>	

**GRUPO**  
**funeuskadi**



**centro médico eibar**

**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
**Orbeako dorreak / 1. solairua**  
 ☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

1) Kardiologia	11) Barne Medikuntza
2) Zirugia	12) Radiologia
3) Dermatologia	13) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	14) Traumatologia
5) Análisi Klinikoak	15) Koloproktologia
6) Ortodontzia	16) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	17) Foto-depilazio
8) Pediatria	Unitatea
9) Psikiatria	18) Ginekologia <span style="background-color: #0070C0; color: white; padding: 2px;">BERRIA</span>
10) Neurologia	19) Psikologia <span style="background-color: #0070C0; color: white; padding: 2px;">BERRIA</span>



## Banatu dittue 27. T. Etxebarria sarixak

Eguaztenian emon zittuen ezagutzera Toribio Etxebarria sarixen 27. ediziñoko irabazliak, sarixak banatzeko IK4-Teknikerren egoitzan egindako ekitaldixan. Addilan-ek fabrikaziño aditubuan aritzen dan industria-esparruko enpresak eta kirolarixendako urtenbide bioteknologikuak eskintzen dittuan KiroiDNA izenekuak jaso eben Toribio Etxebarria sarixa, lehelenguak «Enpresa Berria» kategorixan eta bigarrenak, barriz, «Enpresa Asmoak» kategorixan. Sari nagusixekin batera, beste sari eta aitorten batzuk be banatu zittuen: “Nazioartekotzeko Babesa” sarixa Home (Health Operations Management Engineers), osasun arluan urtenbide logistiko integralak eskintzera bideratuta dagan ingeniariatzalogistiko enpresakuak jaso eben. “Iñaki Goenaga Aitorpena” Eibarko enpresari, barriz, Carabinas Cometa eta AYA taillarrak hartu eben. Azaldutakuaren arabera, Armagin Elkarteak

aurten 50 urte bete dittuala eta, 100 urteko ibilbidia daken eta Eibarko armagintzan erreferentia diran bi horreri emotia erabagi dau epaimahaixak. Eta “Iñaki Goenaga Aitorpena” bikaintasun ekintzailiari, barriz, oin dala bederatzu urte sortu zan Nesplora enpresari emon zetsen.

Enpresa arluan inportantienak diran Toribio Etxebarria sarixak Eibarko Udalak eta BIC Gipuzkoak sustatzen dittue, ekintzailiari egitten daben biharrara aitortzeko eta, horrekin batera, ekintzailtza barriztatzaillia eta enpresa-proiektu barrixak sortzia bultzatzeko asmuarekin. Ekitaldixan esandakuaren arabera, “sarixak sortu zirantetik gaur arte enpresa-arloko 597 ideia eta proiektu baiño gehixago aztertu dira. Aurreko ediziñuetan sarixa jaso daben proiektuak 37 millioi euro inguruko inbersiñua eragin dabe eta 750 lanpostu baiño gehixago sortu dittue, gehixenak kualifikaziño haundikuak”.



## Toribio Etxebarriaren irudixa garbitzera eruan dabe

Toribio Etxebarriaren bustua bere tokixan ez daguela ikusitta, batek baiño gehixagok pentsau eban igual lapurtu egin ebela eta, holako zalantzak argitzeko, udalak aste honetan azaldu dau zergaittik “desagertu” dan eskulturia. Esandakuaren arabera, oin dala pare bat aste laranja koloreko marguarekin irudixa zikindu eban batenbatek eta, hori garbittu ahal izateko, eskulturia Alfa Artera eruan bihar izan dabe. Gauzak holan, Udalak idatzixa egin dau, herritarreri orohar eta txikizioaren erantzulieri bereziki “zentzuz, gizalegez eta modu arduratsuan jokatze” eskatzeko, horrelakorik ez errepikatze. Izan be, aurreikusittakuaren arabera, eskulturia garbitzeko biharrak 1.000 euroko kostua (gehi BEZa) eragingo dabe.

## Aurreko astian andra bateri eraso egin zetsan gizona espetxeratu dabe

Segurtasun Saillak emondako informaziñuaren arabera, aurreko asteko bari-xaku goizaldian Eibarren emakume bat bortxatzen ahalegindu zala eta, zapatuaz geroztik atxilotuta eguan 27 urteko gaztia Martuteneko espetxian sartu eben astelehenian, epailliarren aurrian deklarau ostian,



horrek kartzelara sartzeko agindua emon eta gero. Erasua bari-xaku goizaldian gertatu zan: emakumia etxerako bidian zoiala, gizon batek lurrera bota eta bortxatzen ahalegindu zan, baiña laguntza eskatu eta pegora batian babestia lortu eban andriak. Erztaintzan salaketia ipiñi eban andriak eta zapatuan gizona Eibarren bertan atzeman eta atxilotuta eruan eben. Erasua dala eta, astelehen goizian horri buruz jarduteko billera berezixa egin eban

Eibarko Udaleko Bozeramallien Batzordiak eta, hori amaittuta, alderdi guztiak aho batez onartutako adierazpen instituzionalaren bittartez, udalak gertatutakua gogor gaitzestu eban. Horrekin batera, herritarrak martitzenerako deittuta eguan martxa zaratsura juatera animau zittuan. Erasua kontrako mobilizaziñuan jendetza batu zan eta aurretik gitxitan ikusi da horrenbeste jende herriko kalietan protesta egitten.



## Bildosola txaleta ezin leikiala eraitsi diño Irabazik

Irabazi alderdiko ordezkaria dan M<sup>8</sup> Jesus Agirrek aste honetan azaldu dabenez, *"bere ezaugarri arkitektonikuak dirala eta, eraikin berezixa da"* eta, beraz, Mekolako txaletak Babes Berezixa daka eta ezin leike eraitsi. Azaldutakuari jarraituta, *"eraikin berezi gisa sailkatuta eta Babes Bereziko araubidiari lotuta dago, eta beraz, HAPOaren arabera ezin da eraitsi, ez osotasunian ezta zatikatuta be. Zoritxarrez, Eibarrek oso ondare historiko txixixa gorde dau eta eraikin hori zutik geratzen dan gitxi horretako bat da. Ezin dabe beste barik ezabatu, legia holan urratuta, gaiñera"*. Irabaziko ziñe-gotzixaren salaketia udalak txaleta botatzeko dakan asmuaren harira dator: *"Gobernu-taldiak aurrekontuetan 6.500 euroko partida ezarri eban, eraikiñaren balizko birgaitziari buruzko Bideragarritasun Azterlana egitteko konpromisua betetze aldera, baiña ez da azterlanik egin"*. Irabazitik salatu dabenez, *"Mekolako txalet enblematikua eraitsi eta parke bat egitteko asmuarekin aurrera egin ezkeru, Udalak ez leuke beteko Euskal Kultura Ondareari buruzko araudia"*.

## Datorren asteko Beherapenen Azokan be... Euskara Ahoan

Udako Beherapenen Azokia ("Eibar Factoring") ipiñiko dabe datorren astian Toribio Etxebarria kalia, eguaztenian hasi eta barixakura bittartian. Hiru egunetan (eguzten, eguen eta barixakuan) egun osuan zabalduko dabe azokia, goizeko 10:00etatik 20:00etara. Eibar Merkataritza Gune Irekia alkartekuen eskutik antolatzen dan merkealdixak hamargarren ediziñua beteko dau eta datorren asteko azokan sektore diferentietako 28 dendak hartuko dabe parte, euren produktuen inguruko eskintza berezixekin (23 dendak kalia postua ipiñiko dabe eta beste bostak, barriz, dendan bertan egingo dittue eskintzak). Ediziño honetarako izena emon dabenak Askasibar, Beittu, Burbujas y Más, Cedry, Doroti, Farmalur, Gratzina, Guby Chicos, Guby Mujer, Ikusimakusi, Izane, Klaus, Khloe, Kopiña, Leder, Lide, Marsi, Neure, No Comment, Rosa Domínguez, Ttiki, Txukuna, Xare, Corral, Federopticos Igmar, Oskarbi Oinetakoak, Tribeka eta Vieco dira.

Bestalde, Eibar Kirol Elkartearen denda ofiziala dan Askasibarrek ipi-



ñiko daben postuan 2017-2018 denboraldirako ekipaziño barrixak ipiñiko dittue salgai. Eta ...eta kitto! Euskara Elkartek, barriz, azken ediziñuetan egindakuaren bidetik mahaiña ipiñiko dau, 'Euskaraz Primeran!' kanpaiñaren harira hainbat jarduera egitteko: "Euskara Ahoan" idatzitta daken ezpaziñetarako kakao-barrak oparituko detsez gerturatzen diraneri eta, horrekin batera, nahi dabenak euskeriaren aldeko esaldixak idazteko aukeria eukiko dau, horretarako prestatuko daben mural batian. Gaiñera, parte hartzen daben artian zozketia egingo dabe, EMGI-kuak emondako 100 euroko erosketaxartela oparitzeko.



## Rafael Herce Garraleta "Calahorra"

Eibarren hil zen 2017ko uztailaren 1ean, 81 urte zituela

Bere emazteak: María Pérez; seme-alabak: Rafael eta Itziar, Elena, Igor, Leire eta Emiliok; ilobak: Iker eta Unai; anai-arrebak: Luis (\*), Begoña, Alberto; eta gainerako senideek.

**BIHOTZ-BIHOTZEZ, ESKERTZEN DIZUEGU momentu hauetan eskainitako laguntza eta babesa.**



## ARRATE FILATELIA ELKARTEA

### Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Elkartea 1969. urtean sortu zen zaletasun hau ezagutzera emateko eta zigiluak kideen artean elkartrukatzeko asmoarekin. Gaur egun, teknologia berriak direla eta, ia ez dira zigiluak erabiltzen eta filateliak beharakada nabarmena izan du, baina garai hartan ohikoa zen zigiluak bilatzen jardutea eta bildumak egitea. Filateliak eta enkanteetako aldizkarietaz gain, gehienbat internet bidez lortzen dituzte zigiluak gaur egun. Elkartean 40 bazkide inguru daude, eta domeka eguerdian elkatzen dira Pagaegi kalean daukaten lokalean. Euskal Herriko Filatelia Federazioko kideak dira, eta urteroko erakusketa antolatzeke estatuko beste leku batzuetako jendearengana jotzen dute. Jende gaztea falta dela diote.

### Ekintza nagusiak

Urtero, San Andres jaien inguruan, Exfibar Seilu Erakusketa antolatzen dute, eta bertan 10-15 zaleturen bildumak ikusteko aukera izaten da. Horietako asko kanpotik etorritakoak izaten dira eta Arrate Filatelia Elkartekoen lanek ere hemendik kanpora "bidaiatzen" dute. Aurten 48. erakusketa egingo dute. Erakusketarekin batera urtero zigilu-marka berezia ateratzen dute eta beti Eibarko elkarte edo pertsonaia bati eskaintzen diote (rakestistak, txistulariak, denborrada, Astelena pilotalekua, Eibar K.E...). Horrekin batera omendutakoei buruzko testuak jasotzen dituen liburuxka bat prestatzen dute.

**Bilerak:** *Domeketan, 12:00etan*  
**Helbidea:** *Pagaegi 3, behea*



*Iazko Exfibar erakusketaren inaugurazioa eta sari-banaketa ekitaldia.*

## KANTABRIAKO ETXEA

### Helburuak

Eibarrera bizi izatera etorritako kantabriarren ekimenez sortu zen Kantabriako Etxea, garai hartan "Centro Regional Montañas" izenarekin. Lehenengo bilerak, 50. hamarkadan egin ziren, "La Sindical" eta "El Cantábrico" tabernetan. Elkartea 1958. urtean eratu zen, presidente bezala Manuel Secuencia aukeratu zuten, eta Jardíñeta kalean koltxoi-denda izandako lokala alokatu zuten. Elkartearen egitarauan iru-txirloek eta txirindularitzak pisu handia zuten eta hitzaldiak, erakusketak, Bien Aparecida jaiak... egiten ziren. Infantil mailako hiru foball talde patrozinatzen zituzten, korua zeukaten eta Racingak Eibartik gertu jokatzeko zuzenean bidaiak antolatzen ziren. Une onenetan elkartean 600 bazkide izatera iritsi ziren. Kantabriako Etxeko azken presidentek Jose Manuel Castillo eta Carlos Castañeda izan dira, eta gaur egun Valentín Cabanzón-ek betetzen du kargu hau. Jende gaztea erakartzeko ahaleginetan daude.

### Ekintza nagusiak

Gaur egun 90 bazkide daude elkartean. Iru-txirloen tradizioari eusten diote eta Sanjuanetan txapelketa antolatzen dute. Lehen bezala, txirindularitza babesten dute, eta herrian egiten diren frogretan laguntzen dute. Uztailean irteera bat antolatzen dute eta irailean Bien Aparecida jaiak eta mahai-jokoak. Egoitza Jardiñetan daukate, eta, horretaz gain, Ipuruan taberna daukate bolatokiarekin. Horiek konpotzeko asmoa daukate.

**Helbidea:** *Jardiñeta, 9*  
**Telefonoa:** *943 20 30 90*  
**e-maila:** *eibarcantabria@gmail.com*  
**Kontaktua:** *Valentín Cabanzón Villán*



*Lehen bolatokia Urkin izan zuten, baina autopista eraiki zenean desagertu zen. Gaur egun Ipuruan dago. Bolo palmak garrantzi handia izan du Kantabriako Etxean. Maila nazionalen goiko postuetan jardun zuten. Ipuruako bolatokian Eibarko Hiria Txapelketa egin zen 25 urtetan, eta momentuko jolakari onenek hartzen zuten parte bertan.*



Eibarko Lambretta Klubak XIV. Kontzentrazioa egingo du asteburuan. Motorraren gainean eta handik kanpo ere gozatzeko egitaraua prestatu du taldeak. Gainera, Lambretta fabrika zegoen tokiaren parean dagoen oinezkoen babesguneari Lambretta izena jartzea proposatu dio Udalari, *"kanpotik datorren jendeak jakin dezan, Eibarko Lambrettetekin maiteminduta daudelako"*. Klubeko kideek ere biziki maite dituzte herrian egindako motorrak eta pasioa erakusten dute bi gurpilen gainean.

## ASIER GARIN

(LAMBRETTA KLUBA):



# "LAMBRETTAK EIBARREN

# egin zirelako gara Lambretteroak"

– *San Kristobalگو 'aldapa ezinezkoa' igotzeko motorra prest?*

Bai, denok daukagu motorra prest, nahiz eta Lambretta batek beti eman ahal dizun ezustekoren bat azken momentuan. Gainera, bizikleta baten aurkako erronka prestatu dugu, auzoko txirindulari bat eta Lambretta bat nor baino nor. Berak bota digu erronka. 'Aldapa ezinezkoa' norik igoko duen azkarren jakiteko egingo da lehia. Edu Agirre izango da motorra gidatuko duena eta pentsatzen dut taldeko ordezkari egokiena dela horrelako zerbait egiteko.

– *Zein modelokoa da zure Lambretta?*

2. serieko TV 175 bat da, 1964koa. Ni ez naiz oso trebea mekanika kontuetan eta nire lagun batek zaharberritu zuen nire motorra. Bartzelonako aletegi batean botata aurkitu, lehiaketarako moduan berritu eta erosi egin nion. Zerbait gertatzen zaiotzanean, deitu eta konpontzen dit. Orain dela 6-7 urte erosi nuen. Aurretik baneukan beste bat, Indiakoa, baina Eibarren Lambretta eibartarra eduki behar zela konturatu nintzen.

– *Erronkaz gain, zer gehiago prestatu duzue asteburuko kontzentrazioarako?*

Zapatuan Untzagan batu eta kontzentrazioa egingo dugu lehenik. 90 lagun eta 70 motor inguru elkartuko garela pentsatzen dut. Bertan, Espainiako toki askotatik datozen Lambrettak ikusteko aukera egongo da. Gero, Eibartik ibiliko gara San Kristobalگو aldapara hurbildu aurretik. Erronkaren ostean 60 kilometro inguruko txangoa egin eta Azpeitian bazkaria egingo dugu. Bueltan, poteoa egin eta San Kristobalen gin-tonikak edaten amaituko dugu, baina motor barik ordurako. Domekan beste ibilbide bat egingo dugu kanpoko jendeari laguntzeko.

– *Lambrettaren fabrika 1989an itxi zen Amurrion, baina Lambrettaren sukarrak bizirik jarraitzen du. Zergatik?*

Klasikoen maitaleak garelako. Lambretteroak gara Lambrettak Eibarren egin zirelako. Kontuan izan behar da, gainera, gure kontzentrazioetan Lambrettak bakarrik egon daitezkeela, beste batzuetan mota askotako scooterrak onartzen dituzten bitartean. Lambretta eta Vespa elkartzen dira bilera horietan, eta hori Errealeko eta Athleticeko jendea batzea bezalakoa da.

– *Lambretta batera igo zinen lehen aldian gogoratzen duzu?*

Bai. Orduan ez nintzen motorzalea ere eta orain ez naiz motorretik jaisten. 125eko motor automatiko batean ibilia nintzen eta Lambrettek martxak ezkerreko eskuan zituztela harritu ninduen gehien. Gero, motorra abiatzeko pedala sakatu behar izateak ere harritu ninduen, ohikoa ez delako.

– *Lambretta berriak fabrikatzen ari dira.*

Bai, baina ez da gauza bera. Lambretta berriei ez diegu maitasun handirik, gu Eibarren egindako klasikoen aldekoak gara. Italian egindako bat eskaintzen badidate, ziurrenik ez nuke erosiko. Guk Eibarkoekin dugu obsesioa. Kontzentrazioan, adibidez, Markeskua pareko biribilgunean familia-argazkia ateratzea da gure asmoa, hor parean zegoelako Lambretta fabrika eta kanpotik datorren jendeari asko gustatzen zaiolako euren motorra non egin zen jakitea.

– *Gasolina asko geratzen zaizue?*

Bai, oraindik urte batzuetan jarraitzeko indarra daukagu, baina jende gaztea animatzea garrantzitsua izango litzateke.

Eguzkia normalean onuragarria da giza organismoarentzat, intentsitate eta denboraz neurrian hartuz gero. Baina neurritz gain hartzen badugu ondorio larriak ekar ditzake. Gehienetan, erredura gogaikarriak izaten ditugu, baina ez da ahaztu behar gehigerikeria horiek sarri errepikatzeak epe luzera gaitz handiagoa eragin lezakeela: azaleko minbizia edo melanomak.

# Eguzkia bai... baina neurrian


**AECC** Minbiziaren Aurkako Elkartek larruazaleko minbiziaren aurkako kanpainari ekin dio, eta elkarteko profesional zein boluntarioak Gipuzkoako hainbat herritan izan dira minbizi mota hori izateko arriskuaz eta eguzkia hartzeko ohiturei buruz jendea ohartarazteko. Eibarren uztailaren 5ean eta 12an izan dira, eta Muzategi kalean jarritako mahaira hurbildu diren melanina maila neurtzen jadun dute, horren arabera eguzkipean zenbat denbora pasatu ahal duten esateko. Horretaz gain, eguzkia hartzeko aholkuak eta azalaren azterketa egiteko argibideak eman dituzte.

Ardantza kalean dago Minbiziaren Aurkako Elkartean egoitza. Bertako arduradunak **Ainhoa Oregi** gizarte-langilea eta **Miriam Marquez** psikologoa dira, eta euren zeregina "gaixo onkologiko eta senideen bizi-kalitatea hobetzeaz gain, prebentzio arloan lan egitea da". Larruazaleko minbiziaren kontrako aurtengo kanpainan hurrengan arreta handiagoa jarri dute, eta "esate baterako, Astixarekin udalekuetan diharduten

*haurrekin kontzientziarioa lantzeko jokuak egin ditugu".*

Melanoma oso tumore erasokorra da eta zabaltzeko eta erreproduzitzeko erraztasun handia du. Baina beste minbizi moten aldean badu abantaila handi bat: beti kanpoan azaltzen da eta beraz, lehen momentutik ikusi eta berehala detekta daiteke. Hasierako faseetan detektatuz gero, kasuen %90 sendatu egiten da; funtsezkoa da, beraz, azkar antzematea. Eibarko bulegoko arduradunek gorputza aldizka eta arretaz aztertzea gomendatzen dute, eta ondorengo alerta zeinuak detektatuz gero neurriak hartu behar dira:

- Hasierako melanomak asimetrikoak dira.
- Melanoma gehienek ertz irregularrak dituzte, uhinak egiten dituzte.
- Haisierako melanomek ez dute kolore homoginoa (2 tonu edo gehiago: marroi gorrizka, beltzaxka...)
- Melanomek, oro har, 6 mm baino gehiagoko diametroa dute.
- Melanomak hazi eta itxuraz aldatzen doaz.



*Uda iristean, ia ezinbestekoa da kolore beltzaran erakargarria edukitzea eta badirudi edozerk balio duela eguzki-kolore desiragarri hori lortzeko.*

## EGUZKIAREN KALTEAK MURRIZTEKO AHOLKUAK

- **URA MAIZTASUNEZ EDAN.** Ondo hidratatutako azalak gehiago babestuko zaitu eguzki izpietatik.
- **AIRE LIBREKO** ekintzaren bat egiten baduzu, ondo babestu zaitez.
- **BABES HANDIKO KREMAK** dira eguzki-izpietatik zaintzen gaituztenak. Bi orduz behin eta bainuaren ondoren beti eman behar da krema badaezpada.
- Erabil itzazu **EGUZKITAKOAK, TXAPELAK, KAMISETAK...**
- Gogoratu **EGUERDIKO 12:00**etarik **ARRATSALDEKO 16:00**etara bitartean itzala bilatu behar duzula.
- Saihestu **DENBORA LUZUZ** eguzkitan egotea. Garrantzitsua da zure begiak eguzkitik babestea.
- **BI URTETIK** beherako **UMEEK** ezin dute eguzkia hartu.
- Etxetik **ONDO BEBESTUTA IRTEN** behar dugu. 30 minutu lehenago gure azala kremarekin babestea komeni da.
- **URTE OSOAN** zaindu behar dugu azala, ez udan bakarrik. Eguzkiak urteko edozein unetan kaltetu dezake gure larruazala. Elurretara joaten bagara, esate baterako, ezinbestekoa da eguzki-izpietatik ondo babestea.



*Astelehenetik ostiralera bitartean 9:30etik 13:30era egoten dira Ainhoa Oregi eta Miriam Marquez Ardantza kaleko lokalean. Eskaintzen dituzten zerbitzuak guztiz doakoak dira eta herritar guztientzako zabalik dituzte ateak.*

Deontologikoki zintzo jokatu gabeko erreportajia dozue esku artian, interesatuak jakin barik kaleratzen ausartu garana. Ez baimenik, ez ezer... protagonistak bialdutako argazkixa kenduta. Badira urtiak eskapadatuaren barri emoten daben irudixa puntual-puntual heltzen jakuna. Oinguan, bardin! Holan jaso dogu Erreñuko hiriburuaren udaletxe aurrian etaratako fotografia. Baiña oinguan portadara eramatia pentsau dogu, gitxi izango diralako gure astekariko publizidadia duan eta hain elegante egitten deskunik. Gaiñera, hamarkada bi osatu dittue "trabesuran" hasi ziranetik eta, sasoi betian ikusten bajakue be, erreleuan pentsatzen hasi biharko dira akaso. Ez dabe zailla izango... izkuak ez dira ba? Hartu deixela gure omenaldi xume moduan. Urte askorako!

## Sanfermiñetara ...eta kitto! eskuan

Entzierruetan eguneko pe-riodikua moduan, halaxe jasotzen dabe ...eta kitto! aldizkarixa gure protagonistak. Eta 16:00ak bueltan, Azittaingo gasolinera aurreko Gure Kaiolan juntau eta Iruñerako bidia hartzen dabe. Urtien poderioz, gaiñera, hori be gero eta erosuago dake: "Aurten Mikelek ipiñi dau furgonetia eta eroso eta lasai egin dogu juan-etorrixa. Zorionez, autobusa hartu eta hiru ordutik gorako hárek biájioak han geratu ziran, oroi-tzapenen baulian". Hogei urte dira gustoko eskapada honi heldu zetsela eta ondo gogoratzen dabe orduko hartan "Miguel Angel Blanco Ermuko zinegotzixa hil ebela-eta, horren inguruan giro berezixa eta arrarua nabaritzen zan". Aurten, bestalde, "zenbat polizia, segurtasun-neurri, helikopterua goixan denbora guztian..." hórrrek deittu detse atenziñua. Ez

dira Iruñean bakarrik geratze-kuak eta inguruko herrixak be bisitatzen dittue: "Altsasun be izan giñan, kartzelan daguazen gaztien etorkizunaz arduratuta dagan herrixan".

Urkiatarrak dira egun bateko abenturaren promotoriak, "barixakuan juan, gaupasa han egin eta zapatuan bueltatzeko". Juan Luis eta Jose Andres famelixako nagusixenak abiatutako martxari jarraitu zetsen Oskar eta Mikel anai gaztiaguak. Indartsu dagoz laurak eta jarraitzeko prest, baiña lekukua hartuko dabenetan hasi dira pentsatzen. Azken aldixan Lazareto basarriko Javi de la Viuda eta errugbi munduan jardundako Jon Egiguren gehittu jakuez.

Urtiekin gauzak aldatzen jauten dira. Penaz gogoratzen dabe urtero bisitatzen zebeu Casa Paco itxi zala: "Udaletxetik gertu zeguan eta giro euskaldunekua zan, oso aproposa.



Oin dala zortzi egun, aurreko barixakuan, Iruñeako udaletxiaren aurrian. Goixan, Jose Andres Urkia, Jon Egiguren eta Mikel Urkia; eta behian, Oskar Urkia, Javi de la Viuda eta Juan Luis Urkia.


Oin kebab-a jarri dabe haren tokixan". Hori dala-eta, ohitturak be aldatzen juan bihar! Aurten, esaterako, "ordu erdiko pasia emon genduan Antsoaineraiño juan eta bertan afaltzeko". Gero alderantzizko bidia egin eta jaleuan sartzeko.

Goiza egitten jakuenian, indarrak berreskuratzeke gertu izaten da kuadrillia. Ez pentsa gosia ekarriko dabenik Eibarerra, ez dago halakorik: "Goizian fundamentuz jaten dogu, ez

pentsatu! Han esaten daben moduan, 'almuerzikuari' ez desagu barkatzen... babarrunak eta guzti". Gero, "denboria hartuta", Eibarrera modu onian. Kalte haundirik gabe bueltatzen da gure kuadrillia, "Amañako jaixetara juateko moduan".

Abentureruok aurretik be sumatuko zebeu kazetarixok ze pastakuak garan, barrixak sortzeraiño. Baiña jakin badakixe barrixa ez dogula asmatu: lapurtutako deklaraziñuak dira!

## MARIA GISASOLA UGARTEBURU 4. URTEURRENA: 2013-VII-11



Zu joan zara, baina, zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza.

Zure familia



Euskaraz zein ingelesez, umeek ondo pasatzea dute helburu, eta udan are gehiago. Urteak dira herrian udaleku irekien eskaintza dagoela, Udalak antolatu eta Astixak kudeatuta, baina azken urteetan eskaintza zabaldu egin da. Aisialdiaz gozatzeaz gain, ingeles ikasi edota praktikatzeko aukera dute umeek orain, gozamina delako umeek gehien maite duten hizkuntza.

**H**ogeita sei urte daramatza Astixak herriko gazteen udak alaitzen. Milaka gaztek hartu dute parte Afariketean ekimenean eta barrenean daramatzate uda horietan bizitako esperientzia politak. Gaur egun, Oporrak Afariketean programaz gain, Udan Jolasean eta Firin Faran Abuztuan udaleku irekiak eskaintzen ditu Udalak, eta Astixa arduratzen da horiek kudeatzeaz. Izan ere, herriko gazteek ondo pasatzeko gogo handia daukate eskola amaitu eta amantalak etxean utzi ostean.

Oporrak Afariketean da Astixak kudeatzen dituen programetatik historia eta arrakasta gehien duena. Aurten 6 eta 12 urte bitarteko 600 bat ume hartzen dute parte bertan eta txanda bitan banatuko dira. Txanda bakoitzak bi aste iraungo ditu, eta bata ekainaren 26tik uztailaren 7ra egin da, eta bestea uztailaren 3tik 14ra. *"Hamar egun dira guztira. Bost egun erdi eta bost oso"*, azaltzen digu **Asun Gandiaga Astixako** langileak.

Taldeak zikloka banatzen dira, hau da, 1. eta 2. mailakoak batetik, 3. eta 4. bestetik, eta 5. eta 6. batera. *"Horrela, zikloen arabera moldatzen dugu programa, ekintzak errepikakorrek ez izateko"* eta, era berean, antolatutako ekintzak ere ziklo bakoitzari egokitutakoak dira. Talde bakoitzean hamar lagun inguru batzen dira, *"neska eta mutil kopurua orekatzen saiatzen gara, eta ikastetxe ezberdinetako umeak nahasten ditugu, elkar ezagutzeko"*.



## Gozamenaren hizkuntza nagusi udan

Jolasa du ardatz programak, baina denetarikoko ekintzak egiten dituzte umeek. Egun osoko irteerak egiten dituztenean, adibidez, tokiak eskaintzen dituen baliabideak aprobetxatzen dituzte. *"Mendira joaten garenean bandera-jolasa egiten du-*

*gu, Arraten ur-jolasak, eta abar"*, dio Gandiagak. Lehiaketak, altxorren bila, sagar ustela... jolaserako momenturik ez zaie falta umei Afariketanez irauten duen hamar egunetan. Urtero, *"ahal dela"*, ekintza berriak sartzen saiatzen dira Gandiagak dioenez. Aurten, adibidez, Minbiziaren Aurkako Elkarteak antolatutako gimkana egin zuten nagusienek, 3. eta 4. mailan dabiltzanak Gipuzkoako Foru Aldundiak herrira ekarritako Autobus Teknologikoa bisitatzera joan ziren, eta Elorrio eta Garmarrako igerilekuak bisitatu dituzte lehen aldiz. *"Nagusiekin sukaldaritza saioa egitera joaten gara Gaztelekura, hurrengo urtean bertako erabiltzaileak izango direlako"*, gehitzen du Astixakoak.



Astixak antolatutako irteera bateko irudia.



Uztailean aisialdiaz gozatzeko ekitaldietako bat izaten da San Fermin eguneko gazteenentzat. **Silbia Hernandez**

### Eibarko baliabideak jorratzen

Bost urteko umeek har dezakete parte Udan Jolasean programan. Aurtengo edizioan 80 bat ume eman dute izena eta bi gunetan banatzen dira, Indianokua eta Jazinto Olabeko ludoteka. *"Bizi diren edo ikasten duten tokiaren arabera antolatzen ditugu"*, dio Gandiagak, *"toki horietan bazen gara, baina Eibarrek eskaintzen dituen baliabideak jorratzen ditugu"*. Elgeta bideko, Itzioko eta Sautxiko parkeetara irten dira programak irauten dituen hamar egunetan, besteak beste, *"Eibar ezagutzeko aukera eman dugu eta, hainbeste ume izanda, motz geratu da"*.

Hauek ere jolasa dute ardatz ekintzak egiteko orduan. *"Euren adinari egokitu-tako sukaldaritza saioak, eskulanak, igerilekura irteera, ur-jolasak, kanpo-jolasak, tailer txikiak... jolastu eta ondo pasatzu hainbat gauza lantzen ditugu"*, Gandiagaren berbetan. Umeak zaindu eta ondo pasarazteko zortzi begirale ditu Astixak, eta talde bakoitzean koordinatzaile bat dauka.

### Abuztuan ere

Aurten lehen aldiz abuzturako eskaintza luzatu du Udalak. *"Aurretik ere egin dira saiakerak, baina ez zen jendea animatu"*, Gandiagak esaten duenez. Hasiara batean 47 ume eman zuten izena, baina azkenean 35ek hartuko dute parte Firin Faran Abuztuan ekimenean. Bost urte eta Lehen Hezkuntzakoei zuzendutako programa da, *"baina bost urtekoen taldea sortzeko minimoa ez da lortu"*.

Firin Faranek udako beste programen *"ildo bera"* izango du eta inguruko herri, hondartza eta mendietara egingo dira irteerak, *"eta toki bakoitzari egokitutako ekintzak landuko ditugu"*. Kasu honetan, adin guztietako umeak batera joango dira, *"baina hori aintzat hartuko dugu gauzak egiteko orduan"*.

### Gometz berde asko

Udaleku irekien zerbitzua eskaintzen hainbeste urtetan jarraitzeko, Astixak bere eskaintza hobetu du urtetik urtera eta hobetzen jarraitu nahi du. *"Horretarako berebizikoa da gurasa eta umeen balorazioa jasotzea"*, azpimarratzen du Gandiagak. Umeen kasuan, adibidez, gometzak erabiltzen dituzte egunean egindakoa baloratzeko. Kolore berdekoa jarriz gero, gustatu zaiela eta ondo pasatu dutela adierazten dute, *"eta normalean gometz berdeak jasotzen ditugu"*.

Astixak argi dauka bere helburua, *"Eibarko umeei opor sasoi osasuntsu, dibertigarri eta segurua eskaintzea. Ondo pasatzea azken finean"*. Jolas eta barre artean umeen autonomia lantzen dute, euskaraz. *"Euskararen erabilera positibatzeko eta Eibarko euskara jorratzea da gure asmoa"*, ahal den neurrian, izan ere Gandiaga berak aitortzen duenez, *"hamar egunetan ezin da miraririk egin"*.

### Uda, 'fun time'

**Nekane Pastor hizkuntza eskolara eta Zorionak ludotekak** udako kanpamendua eskaintzen dute ingelesez, 'summer

camp'. Zortzigarren aldia da aurtengoa eta 73 ume ari dira euren uda ingelesez gozatzeko Elen, Alberto, Ainhoa eta Jorgeren begiradapean, *"beste 3-4 begiraleekin"*. Bi taldetan banatzen dira, txikiak eta handiak: *"Txikiak hiru eta bost urte artekoak dira, eta handiak sei eta hamabi bitartekoak"*, dio Elenek.

Ekainaren 26an hasi zuten kanpamendua eta uztailearen 21era arte ibiliko dira. *"Aste bakoitzean gai bat jorratzen dugu"*, azaltzen du Ainhoak, *"eta horren inguruan ekintza, txango eta abarrak antolatzen ditugu"*. Adibidez, aste batean musika izan zen gaia, *"eta musika hizkuntza unibertsala dela ulertu eta emozioak lantzeko"*, txangoak egin zituzten musika eskolara, Karmelitetara organoak ikustera eta Maitte Arroitauregiren lokalera, *"biolinak nola egiten diren ikusi genuen han"*. Horrela egiten dute astero, eta tximeletak, gorpuzta eta adimena, eta lanbideak dira landuko dituzten beste gaiak.

Egunero eta errutina sortzeko asmoz, txikiak bere burua aurkezten, zein eguraldi egiten duen azaltzen eta asanblada moduko bat egiten dute ingelesez. Den-dena ingelesez. *"Hala ere, txikiak ez dute ingelesez asko egiten, nahiz eta dena ulertzen duten"*. Nagusiek bai, euren botatzen dituzte ingelesezko berbak. *"Txangoak egiten ditugunean ere egunean ikusitakoarekin hiztegia ateratzen dugu"*, eta 'helper' delakoa izendatzen dute egunero, laguntzailea izango dena, *"berak azalduko du zer egin, zein eguraldi dagoen eta zerrenda pasatzen du"*.

**Nagore Cabanzon eta Alex Davies** (gazte musikariak)

## «Sanjuanetako danborrada txikian jotzen dugu saxofoia»

*Eibarko Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleak dira Nagore eta Alex. Nagorek 16 urte ditu eta Alexek aurten beteko ditu. Musikak leku garrantzitsua betetzen du euren bizitzetan. Aspaldiko lagunak dira; izan ere, elkarrekin joaten dira saxofoi klaseetara. Sanjuanetan saxofoia jotzen ikusi ditugu herriko kaleetan. Ustekabe fanfarrearekin batera aritu dira Haurren Danborradan.*



**- Ustekabekoekin ikusi zaituztegu jaietan saxofoia jotzen, baina ez da lehenengo urtea izan, ezta?**

Urteak daramatzagu saxofoia ikasten, 8 urte inguru. Elkarrekin joaten gara klaseetara. Inaki gure irakasleak orain dela hiru edo lau urte proposatu zigun Ustekaberekin haurren danborradan jotzea. Entsaizten hasi ginen, gustatu zitzaigun eta urtero iritetzen jarraitzen dugu. Ustekabekoek urteak daramatzate musika eskolako ikasleak eurekin eramaten danborrada txikian. Aurten gu biok eta gu baino gazteagoak diren Jon Telleria eta Ander Gallastegi egon gara.

**- Saxofoiaz gain, musikarekin lotutako beste zeozer egiten duzue?**

**Alex:** Saxofoiaz aparte baxua ikasten dihardut eta musika eskolako talde batean jotzen dut instrumentu hori. Taldearen izena JEISA da (izenarekin ez gara ados jartzen eta aldatzen ibiltzen gara). Sanjuanak aurretik Txaltza Zelaiko auditorioan jotzen ibili ginen.

**Nagore:** Nik, saxofoia ikasteaz gain, Eibarko Koru Gaztean abes-

ten dut. Eta dantza ere egiten dut Ipurua Dantza Taldean. Irailean Koruak berriro musikala egingo du. Koruko batzuk kanpora joan behar dira ikastera eta ezingo dute jarraitu, beraz musikalerako gauza batzuk aldatu behar ditugu.

**- Kalean jotzen duzue, gustora ibiltzen zarate orduan?**

Oso gustora ibili gara. Kalean eta jende aurrean jotzeak animatu egiten zaitu. Azkenean hainbeste urte instrumentua ikasten eta bakarrik gurasoen aurrean jotzen... Kalera irtetea ikasteko beste modu bat da, beti ikasten duzu zerbait. Gainera, talde batek babes-tuta egoteak lasaitasuna ematen dizu; nekatuta zaudenean atsedenalditxo bat hartu dezakezu eta ez da ezer gertatzen.

**- Nolako aukerak ditu saxofoiak?**

Aukera asko ditu. Rock eta pop taldeetan azken aldian sarri entzuten ari den instrumentua da. Adibide modura, hor ditugu Ariana Granderen "Problem" edo Moldaviatik Sunstroke Project-ek Eurovisionera bi aldiz eraman dituen proposamenak. Bera, ez da blues eta jazz estiloetan bakarrik gelditzen.

**Izadi**  
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**Radio Eibar**  
CADENA  
**SER**  
104,0 FM

**ITZULPEN**

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU, euskaratik gaztelerara, gazteleratik euskarara, eta ingelesetik euskarara.**

**ZERBITZUA**  
elkartea@etakitto.com



## MUSIKAZ blai egiteko moduko UDA

Uda giroarekin batera, herri eta hiri askotako agendak jaialdiz betetzen dira eta gazte askok ederto aprobetxatzen dituzte horrelakoak lagunekin batera batetik bestera ibiltzeko plana egiteko. Begiratzaren hasiz gero, estilo eta gustotuztietara moldatzeko mo-


duko aukera dagoela ikusiko duzue. Hala ere, lan hori errezteko, jaialdi nabarmenak laburbildu dizkizuegu hemen. Agurtu berri den Getxoko nazioarteko jazz jaialdiari egunotan Gasteizen ospatzen ari denak hartu zion txanda eta, horren atzetik, Donostiakoa etorriko

da: 52. Heineken Jazzaldia uztailaren 21tik 25era bitartean izango da eta, urteroko martxan, genero horretako izar nagusiak bertatik bertara zuzenean entzuteko aukera izango da. Jazzaldiaren inaugurazioak, bestalde, "Poem of a Cell", Stefan Winteren lan berritzailea eramango du Zurriolako hondartzaraino datorren asteko egunean (uztailaren 20an), 22:30ean. Mundu mailako estreinaldia izango da eta 60 musikari baino gehiagok zuzenean joko dute, filma proiektatzen den bitartean. Hor izango dira, adibidez, Uri Caine, Mark Helias, Clarence Penn, Barbara Walker, Joachim Badenhorst, Fumio Yasuda, Rajab Suleiman, Saada Nasser, Fanny Winter, Kettwiger Bach Ensemble eta Forma Antiqua.

Horiez gain, atzo hasi zen Hondarribiko Blues Jaialdia domekara arte egongo da martxan eta Armintzan (Bizkaia), berriz, bihar izango den Txapel Reggae jaialdiak dantzarako giro aparta sortuko du zalantza barik: Macka B & The Roots Ragga Band, The Mighty Jah Observer, The Hotknives eta beste askorekin batera Skabidean, Batukale Samba, Salda Dago & Thunder Clap eta Aiaraldeko Sound System modukoek jardungo dute. Eta rock indartsua gustoko dutenek Hatortxu Rock jaialdia zain izango dute Lakuntzan, uztailaren 27tik 30era bitartean joko duten 86 talderen musikarekin.

## Europar zehar mugitzeko behar den guztia esku-eskura

Gazteen Euskal Behatokiaren eskutik sortu den 'Helmuga Europa' 2017 mugikortasun gidak gazteek Europan barrera mugitzeko jakin behar duten guztia laburbiltzen du eta informazio praktikoa ugari eskaintzen du. Argitalpen honetan horrelako galderen erantzunak aurkituko dituzue, besteak beste: Nola ikas ditzaket



hizkuntzak, dirurik gastatu gabe?; Ba al dago gizarte-sarek hizkuntza bat praktikatzeko jendearekin kontaktatzeko?; Zer dokumentazio behar dut EBko herrialde batera bidaiatzeko edo bertan bizitzeko?; Balio al dit nire gidabaimenak?; 18 urte badituz, auto bat aloka dezaket?; Non aurki dezaket gazteentzako ostatuei buruzko informaziorik?; Nola egin behar da beste herrialderen batean balioko duen curriculum bat?; Ba al dago, adibidez, Austrian lana bilatzeko webgunerik?; Nola kontakta dezaket "au pair" gisa lan egiteko agentzia batekin?; Non gara dezaket boluntario-laneko esperientzia bat?... Gida interneten dago eskuragarri, doan, eta PDF formatuan euskaraz zein gazteleraz jaitsi daiteke [www.gazteaukera.euskadi.eus](http://www.gazteaukera.euskadi.eus) helbidean.



Skabidean, orain dela bost urte lruñean sortutako ska taldea.

# moda



# arkitektura

## 3D moda


**Askok diote moda gauza ziklikoa dela, eta ez naiz ni izango arrazoa kenduko diena.** Baina berrikuntzak ere badaira, azken urteotan, modaren industriak teknologiarazabalkuntza egin baitu. Diseinurako erremintak zein produkziarako makinak hobera doaz, baina kontzeptu zeharo desberdinak ere azaltzen hasi dira. 3D-ko inprimatzearekin nator gaurkoan. Jantzien zein osagarrien ekoizpenean, teknika horrek garapen



izugarria izan du, eta badirudi bide horri ekiteko asmoa duela. Teknika horren nondik norakoa ez da batere konplexua. Hitz gutxitan esatearren, zenbait programa erabiliz ondoren lortuko denaren modeloa diseinatzen da, inpresioari pausu emateko. Materialak, hasiera batean, xafla forma du, hori zirrikitu batetik pasatzen da, bertan materiala urtze punturaino berotzen delarik, eta zeharo hotzago dagoen base baten gainean lagatzen du. Pausu hori geruzaka errepikatzen doa, azkenik lortu nahi den forma sortzeraino.

Guzti horrek aukera amaigabeak eskaintzen ditu, bihurtuz betetako jantziak zein konposizio guztiz konplexuak. Hasiera batean forma sinpleenak egitea oso prozesu motela bazen ere, egun bizkortasuna irabazi da eta, gainera, bakarrik beharrezkoa den materiala erabiltzen da.

*laura albistegi*



Iris Van Herpen izan zen teknikaren aitzindaria, soineko zein zapata zeharo desberdinak kaleratuz eta, azkenaldian, diseinatzaile handietako batzuk ere arte hori probatu nahi izan dute. Chanelek bere jakadun traje mitikoa, Versacek zenbait zapata, edota Moises Nietok, kamiseta ugarirekin. Azken honek, gainera, zertxobait haratago joan izan nahi du, xafla formako lehengaitzat plastikozko botilak erabiltzen baititu.

*nagore fernandez*




**Heldu da uda eta opor usaina nabarmentzen da.** Eibarko kaleak neguan baino hutsago igartzen dira. Gaur hondartzara, bihar mendira. Zu Bostonera, ni Kaliforniara. Urrun edo gertukoak izanda ere, jende eta txoko ezberdinak ezagutzeko aukera paregabea, begiak ireki eta ideia berriak gureganatuz... Izan ere, zein garrantzitsua den oporretan teilatua freskatzea!

## Opor konstruktiboak

Eta arkitektura anatomikoaren osasunarekin jarraituz, denok dakigu gure fatxada sentikorra eguzkitik babestea komeni dela. Baita kirol pixkat egin eta estuktura indartsu mantentzea ere. Hortaz gain, urte osoa darabilgu lanean jo ta su, errutin murgilduta eta eginbeharrek itota. Aprobetxa ditzagun beraz jai egun hauek, urte osoan zehar gure euskarri diren familia eta lagunekin planak egin eta denbora pasatzeko, harremana sendotzeko. Gure barne arkitekturaren kontuan hartu beharreko zerbait baldin badago, zimenduak baitira; lan ikustezen baina ezinbestekoa egiten duten horiek. Ekaitza edo lurrikara denean, haiei esker gaudelako zutik. Eta (zoro)haizeak jotakoan, lurrera irmo lotuta. Hau bai hau ITE garrantzitsua, ez duzue

uste? Ba behin hau gaudituta, txapela buruan eta... New York? Atenasko Partenoiak? Parisko Notre Dame? Machu Picchu beharbada? Edo Benidormeko apartahotel bat? Denak izan daitezke bisitatzeko eraikin interesgarriak, aizue! Beno, nonahi dela ere ondo pasa, merezitako atsedena hartu eta ikusi eta ikasitako istorioak ekarri bueltan... baina batez ere, opor konstruktiboak izan daitezela!





## IKER GARCIA-PASCUAL (KULTURISTA):

# “Gorputzak egindako lana islatzen du”

**B**etidanik” dio kulturismoa egiten duela. Baina izango dira “sei bat urte” Iker Garcia-Pascual kirol hau “jarraitasunarekin eta janaria zaintzen” egiten hasi zela. “Hobbya” zena “irrika” bihurtzeraino. Kulturismoan aurrera egiteko ahalegin handia egin behar badu ere, gustuko tokian aldaparik ez: “Dedikazioa eskaintzen diot, ez dago sakrifizioirik”. Gogortasuna gehiago nekea baino.

Emaitzak ez dira nolana hikoak izan eta maiatzaren erdialdean Euskal-Nafar Txapelketan nagusitu zen, handik astebertera bigarrena izateko Espainiako Iparraldeko Txapelketan. Laugarren urtea da lehiaketetan parte hartzen hasi zela eta Gernikan urtero jokatzeko den fitness txapelketetan nagusitu zen 2014an eta 2015ean, “bakoitzean maila desberdinetan”. Ez zaiolako gustatzen irabazi duen lehiaketan berriro parte hartzea. Bi arrazoi ditu horretarako: “Neri aurrera egiten ez laguntzeaz aparte, gazteagoi bidea ixten dietelako”.

Aurtengo lehiaketei begira, bere burua irabazle ikusten

zuen galdetuta, emaitza alde aurretik jakitea zaila dela dio Garcia-Pascualek: “Ez dakizulako zeinen ondoan egokituko zaizun. Batez ere, urte batetik bestera izan duzun hobekuntzari ematen diot garrantzia, lortutako prest-ijintzeari”. Jauzi berriak ematearen zale, beste maila batera pasatzea eta bestelako aldaketak ditu buruan: “Bainujantziarekin egiten den mens short izan daiteke aukera bat, hor estetika bilatzen delako gehiago”.

### Gorputza lanaren ondorio

Eibarren bizi bada ere, Ikerrek Durangon egiten du beharra. Kirol-gehirriak saltzen dituen denda du eta, horrez gain, “prestaketa fisikoak eta dietak” zuzentzen ditu. Kulturismoan urtero bi denboraldi jokatzeko dira, “bietan lehiatzea oso zaila bada ere”. Hori bai, kirolarien saiakera urte osokoa izaten da: “Ohiturak eskaini behar dizkiozu gorputzari, lehiaketen aurretik zertxobait aldatuko direnak”. Txapelketarako hiru hilabete geratzen direnean aldatuko du planing-a eta, “prestaketaren arabera, karga eta deskarga dietekin



Hiru hilabete lehenagotik prestatzen ditu txapelketak Ikerrek.

hasiko naiz”. Karbohidratoak gutxitzeko faseari metabolismo bizkortzeko faseak jarraitzen dio, koipea gutxitzeko ahaleginean. Behin lehiaketa eginda, gorputzak hobeto erantzuten du eta “une egokia izan daiteke aurrera egiteko, errebote efektuak bere arriskuak badituen arren”.

Iker Garcia-Pascualek ez du ondo ulertzen “kirola egitera eta gorputza zaintzera gero eta gehiago deitzen digutenean,

kultoa bihurtzeraino” zelan kulturismoa hainbeste kritikatzeko den, atzean dagoen lana errefusatzeraino. “Inork ez du esaten Indurainek egiten zuena eginda bera modukoa izan zezakeenik”. Arnold Schwarzenegger du gustuko, “saiatu zen horretan emaitza lortu zuelako: kulturista izan zen, aktorea gero eta baita gobernadorea ere”. Bere lehenengoko txapelketetan Gipuzkoako eta Euskadiko txapelak jantzi zituen kirolariak “gorputzak egindako lana islatzen” duela dio eta ez du erretiratzeko egunik aurrirakusten: “Agian atsedena hartuko dut, baina ez dut lagako”. Emakumea gero eta sartuago ikusten du kulturismoan: “Beldurra kendu behar diegu pesei; emakume bat ez da gizon bat moduan gihartuko”. Eta zenbat eta gazteago hasi hobe dela esaten digu, “beti ere, jakina, ohiturak ezarri. Dietak ez, hori beste kontu bat da; ume batek denetarik jan behar duelako”.



Eibartarra erdian, Euskal-Nafar Txapelketa irabazi zuen egunean, urrezko domina paparrean duela.

## 130 parte-hartzaile Armaginen Elkartearen 50. urteurrenaren tiraldian

Uztailaren 2an Arrateko tiro zelaian jokatu zen Armaginen Elkartearen urrezko ezteien tiraldian 130 tiratzailek

hartu zuten parte. Plater-tiro modalitatean jokaturako torneoan Gonzalo Gil, Iñigo Alvarez eta Mikel Gerrikabeitia izan

ziren irabazle, botatako 30 tiroetan asmatu eta gero. Arrateko Hegan Tiro Elkarteak antolatutako jardunaldi osoko probaren amaieran, diruaz aparte, sari kopuru mordo bat banatu zen, tartean Benelli Belmonte eskopeta, Winchester errifle, BA 13 Bergara errifle eta Muela Cocker laban artisaubana. Aguirre y Cía., Ardesa, Armusa, BBI, Dikar, Chiruca, Corsivia, Delsur, Manufacturas Muela, Parabellum, Skyway, Suministros Evia eta Trust Eibarrés enpresek babestu zuten proba.



## Ruben Pinillos nagusitu zen tenis txapelketaren X. edizioan

Eibarko tenislariak erraz irabazi zion, gainera, Sergio Urriza mutrikuarrari finalean: azken honek hiru joku besterik ez zizkion egin Pinillosi (6-1 eta 6-2). Elgoibarko 40-15 Tenis eta Padel elkarteak hamargarren urtez antolatu duen txapelketa maiatzaren 2an hasi zen eta uztailaren 1ean jokatu zi-

ren finalak. Teniseko finala, gainera, oraingoan Unben jokatu zuten eta ez Elgoibarren. Mintxetan jokaturako padel finalean, bestalde, Sonia Merino eta Olatz Lejardi (6-0 eta 6-0) eta Oier Urigoitia eta Igor Zabaleta (7-5 eta 6-2), biak ere Durangoko bikoteak, jantzi zuten txapela.



Pinillos eibartarra, zutik eta ezkerretik hasita bigarrena, beste sarituekin irabazleen talde-argazkian.



## Osorok lesiotik ondo sendatu dela erakutsi zuen Frantzian

Aurreko asteburuan Euskal Herritik kanpo jardun zuten Delteco Eibar Triatloi Taldeko kideek sasoi honetako triatloietan parte hartzen. Medina de Riosecon jokaturako sprint triatloian Roberto Gartzia, Alberto Agirre, Adrian Galan eta Txema Artetxe izan ziren, Cristina Ruizekin batera; azken hau izan zen, hain justu, onena beteranoen mailan. Bestalde, Pello Osorok garbi laga zuen, orkatilako lesiotik sendatuta, bueltan dela eta, Frantziako Pirinioetan jokatu zen Half Altriman proban hirugarren sailkatu zen.

## CORO ZUBICARAY AGUIRREGABIRIA

### 3. urteurrena (2014-VI-23)

Haren alarguna: *Calixto Ulacia Beristain*

**“Beti egongo zara gure bihotzetan”**

SENARRA ETA ALABAK



## Waterpoloko denboraldi bikainari erramua jartzen ahaleginduko da kadeteen taldea Kanarietan

Herenegun joan zen Urbat waterpoloko kadeteen mailako taldea Kanaria Handiko Las Palmasera Espainiako txapelketa jokatzera eta han lehiatuko du domekara arte. Denboraldia amaitzeko lau jardunaldiren faltan irabazi zuten Euskal Herriko Liga Davide Cerchiren mutilek, 21 taldeen arteko lehiaketan partidu bakarra galdu barik. Orain zailago

izango dute, jakina, Barceloneta, Canoe, Navarra eta Coruña bezalako talde haundienekin jardungo dutelako, nor baino nor; ziur esperientzia irabazteko mesedegarria izango zaiela. Aurrez ere denboraldi bikaina egin dute Urbat Urkotronikekoek: senior mailako lehen taldeak hirugarren postuan amaitu zuen Euskal Herriko Liga eta maila bereko nesken tal-



de sortuberriak laugarren izan dira liga horretan. Azken horiek, gainera, bigarrenak izan di-

ra 2. Mailako Espainiako txapelketan eta urtarrilean Euskal Herriko Kopa bereganatu zu-

## Eibar FT-k entrenamenduak hasi ditu


Azken denboraldiko 17 jokalaria, min hartutako Yoel atezaina eta Lugon denboraldi bikaina egin zuen Jordi Calavera hegalekoarekin batera, klubak azken hilabeteetan fitxatutako Ivan Alejo eta Dmitrovic atezaina (biak Alcorconetik) eta Charles aurrelaria (Malagatik) ditu Mendilibar entrenatzaileak denboraldi berrirako. Sasoi honetarako inoiz baino talde osotuena. Hala ere, atzealdea indartu beharko du, bereziki Lejeuneren bajak (12 milioi euro laga ditu bere irteerak Newcastlelra) eta Lunaren eta Maurorenak la-

gatako hutsunea betetzeko. Bestalde, Fran Rico oraindik ez da errekuperatu guztiz lesiotik eta Nano aurrelariarekin ikusteko dago gauzak aurrera egiten duten edo beste talde batera joango den. Hervias Realetik fitxatutako jokalaria Valladoliden jokatuko du eta Pere Millak Numantzian, eta Elgezabal eta Escoruela nora joango diren erabakitzeke dago. Taldeak herenegun hasi zituen entrenamenduak, goizez Atxabalpen eta arratsaldez Ipuruan, bere taldea ikusteko irrikitan zeuden 300 zaletu baino gehiagorekin.

## Jon Errastik Alcorconekin jokatuko du 2. A mailan


Eibarko erdilariak bi urterako sinatu du Madrilgo taldearekin, azken bietan Italiako Spezia taldean jokatu eta gero. Azken talde horrekin maila igotzetik gertu izan bazen ere, azkenean ezin izan du Eibarrekin lortutakoa berretsi; hala ere, Errasti titular izan da partidu gehienetan. Aurretik Eibar FT-ren sasoi onenak bizi izan zituen, 2. B mailatik 1. Mailara jarraian izandako biigoeretan parte hartuta. 108 partidu ofizial jokatu zituen guztira Eibarrekin eta orain, 29 urterekin, Espainiako Ligara bueltatzen da, 2. A mailan Alcorconekin jokatzeke.





**Ezkontzen DENBORALDIA**

*Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe*



**50.** urteurrena

**DARIO** bus

[www.dariobus.com](http://www.dariobus.com) - [clientes@dariobus.com](mailto:clientes@dariobus.com)

Tel. 943 741 677



**San Andres Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak etxera**

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

[www.kolorlan.com](http://www.kolorlan.com) 667 54 89 16



**KOLORLAN**  
PINTURA LANAK S.L



**DAVID ARRANZ**  
(argazki-zaletua)

**– Argazkilaritzarekiko zure zaletasuna sare sozialen eta, batez ere Instagram-en eskutik dator. Nola hasi zinen horretan?**

2011. urtean iPhone 3G telefonoan Instagram aplikazioa instalatu eta hor hasi zen guztia. Sare sozial horretan kontua zabaldu eta, horri esker, gauza asko irakatsi dizkidan jende askorekin kontaktuan ipini nintzen. Instagram erabilita, argazkilaritzari buruzko gauza asko ikastez gain, lagun asko egin ditut eta horrek asko pozten nau.

**– Eraitza ikusita, zaila egiten da argazkiak mugikorrarekin egiten dituzula pentsatzea...**

Argazkien edizioa lantzeko aplikazio asko daude eta horrelakoak erabiltzen ditut: Camera, SnapSeed, Image Blen-

## “Argazkia egiteko ezinbestekoak? Begirada eta sormenerako ahalmena”

Uztaila amaiera arte “Different Realities”, David Arranz-ek telefono mugikorrarekin egindako argazki-erakusketa egongo da ikusgai El Corte Inglesean. Laredon 1983an jaioa, gaur egun ere han bizi da eta, argazkilaritza betidanik gustatu arren, berarentzat zaletasuna izaten jarraitzen duela esan digu. Hala ere, Instagram sare sozialean @arridj bere kontuak 150.000 jarraitzaile baino gehiago dauzka. 2011n, kontua sortu zuenean, telefonoa eta argazkiak lantzeko hainbat aplikazio erabilita sortzen dituen argazkiek horrelako arrakasta izango zutenik nekez imajina zezakeen.

der, Handy Photo, Adobe Photoshop Express eta beste asko. Hala ere, argazkia egiteko orduan norberaren begiradak eta sormenerako ahalmenak dute garrantzi gehien, horiei esker lortzen da azkenean argazkiak erakusten duen irudia.

**– Berez, zuk ez duzu honetan lan egiten, ezta?**

Ez, argazkilaritza zaletasuna da niretzat, argazkiak egiten disfrutatu egiten dut. Bestela arrebekin batera erropadenda bat daukat Laredon. Orain dela sei urte zabaldu genuen eta, egia esan, oso pozik gaude. Dendan ez ezik, internet bidez asko saltzen dugu eta, sare sozialei esker jende askok ezagutzen gaitu.

**– Nolan zabaldu duzu erakusketa Eibarren?**

Kasualitatea izan da. Nire arrebetako

batek Eibarko El Corte Inglesean lan egiten duen lagun bat dauka, agian erakusketa egiteko aukera zegoela komentatu eta, horrela sortu zait nire lanak Eibarren erakusteko aukera, benetan pozik nago.

**– Nolako lanak ekarri dituzu erakusketara?**

Nire argazkietako batzuk ipini ditut ikusgai eta, horrez gain, nire argazkiekin diseinatutako arropa ere badago. Izan ere, lagun batek animatuta orain dela gutxi kamiseta eta beste arropa batzuetan nire argazkiak inprimatzen hasi naiz eta oso harrera ona izaten ari dira. Asmoa argazki bakoitzarekin oso jantzi gutxi egitea da, ez errepikatzeke eta, horrela, moduren batean eskusibitateaz ziurtatu. Milla argazki baino gehiago dauzkate eta, beraz, non aukeratu badago.

## UEUren ikastaroak bigarrenez etorri zaizkigu bisitan

Ekaineko azken egunotan Udako Euskal Unibertsitatearen eskutik Markeskuan abiatu ziren udako ikastaroak, Iruñea eta Baionara salto egin eta gero, aste honetan gure herrira bueltan etorri dira, eskaintza zabalarekin, gainera. Astelehenean hasi eta atzora arte oso gai ezberdinen inguruan trebatzeko aukera aparta izan dute ikastaroetan parte hartu dutenek, esparru bakoitzeko adituekin, euskeraz eta etxetik oso urrutira joateko premia izan barik. Ikastaroen harira, aste honetan Amaia Elorzak “Eathink2015” proiektuari buruzkoak kontatu ditu, German Velayos-ek loreen polinizazioaren eta erleen garrantziaz jardun du, Amaia Arroyok unitate digitalen diseinuari bu-



ruzkoak azaldu ditu, Beatriz Akizuk eta Idurre Eskisabelek telebista publikoa nola irudikatzen duten azaldu dute eta Bea Narbaiza, Libe Mimenza eta Edorta Arana UPV/EHUko ikertzaileek, berriz, azken bi urteotan lantzen ari diren “Tirabirak” proiektua zertan den kontatu dute, besteak beste. Bestalde, UEUren udako eskaintza biribiltzeko, ikastaroekin batera hainbat jardunaldi ere antolatu dituzte eta, horrela, atzo eta gaur “Euskara, generoa, jatorria eta klasea gurutzatzen diren lekua” izenburuko ari dira egiten Usurbilen, Jakin, Usurbilgo Udala eta UEUren elkarlanari esker.





## Gaur gauean agurtuko dute denboraldia Musika Bandakoek

Oporren aurretik azken kontzertua emango du gaur gauean Eibarko Cielito Musika Bandak, 23:00etatik aurrera. Carlos Sanchez Barbak zuzenduko duen emanaldian honako piezak eskainiko dituzte: "Teatro Montecarlo" (pasodoblea, A. Perez-Perello), "Agua azucarillos y aguardiente" (zarzuela aukeraketa, F.Chueca), "Music from Bravhearth" (BSO, J. Horner), "Oregon" (gaia, J. de Haan) eta "Dantzaldia" (herri-kantuak, I. Urkizu). Euririk ez bada Toribio Etxebarria kalean izango da kontzertua eta, bestela, udal-letzeko arkupeetan joko dute. Oporretatik bueltan, irailaren 24an ekingo diote ikasturte berriari, Coliseo antzokian eskainiko duten emanaldiarekin.



Maialen Belaustegi

## Lagunarteko kontzertuarekin agurtu zen Napoka Iria

Coliseo antzokiko toki guztiak bete zituen aurreko barixakuan Napoka Iriak agur esateko emandako kontzertuak. Miren Narbaizak eta Ander Mujikak lagun ugari izan zituzten aldamenean taula gainean zein publikoaren artean eta, euren esker ona adierazteko idatzi dutenari jarraituta, "aurreko barixakuko kontzertua ezin izan zitekeen hobea izan. Imajinatu genezakeena txiki laga zuen antzokian pasatu zenak. Hainbestetan sentitu izan dugun atmosfera goxo hura egon zen, eta elkarrekin sortu genuen. Kantu batetik bestera gure historia txikia pasatzen ikusi genuen, hiltzorian denaren moduan bizitzak eskainitako instanteen kronologia baten antzera. Biok elkarren konpainia soilean hasi eta bizipenez jositako ibilbideari agur lagunartean esateko".

## Arrateko Bertso-Afarirako sarrerak salgai

Gaur amaituko da ...eta kitto!-ko bazkideentzat Arrateko bertso afarirako sarreraren aurrealdia eta, beraz, martitzenetik aurrera ohiko lekuan, Kultu, Sagar Bitza eta Kantabria tabernetan salduko dituzte, 32 eurotan. Aurten 25 urte beteko ditu Arrate bezperan ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik urtero egiten den bertso afariak eta, hori ospatzeko, laukote bikaina izango dugu Kantabria jatetxean: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Onintza Enbeita eta Maialen Lujanbio. Gai-jartzaile lanetan, berriz, Jon Mikel Mujikak jardungo du aurten ere. Saioa, urteroko moduan, irailaren 7an (eguna) egingo da, 21:00etan hasiko den afariaren ostean. Urtemuga dela-eta, sarrera erosi dutenen artean bi lagunentzako Kantabriako menu berezia zozketatuko da bertso-saioan

## 1967. urtean jaiotakoen jaia

Eibarren 1967an jaiotakoek bazkaria egingo dute urriaren 7an eta, hori antolatzeko, "Asociación Recreativa EIBAR 1967" elkarteak sortu dute. Aurrerantzean elkartekide izateko aukera dute urte horretan Eibarren jaiotako guztiak, baita Eibarren bizi eta bertan jaio ez direnek ere. Horretarako datu pertsonalak (izen-abizenak, helbidea, jaioteguna, kontakturako zenbakia eta emaila) bidali behar dira, "EIBAR 1967" Facebook kontura edo 1967eibar@gmail.com helbidera idatzita. Joateko asmoa dutenek 90 euro sartu beharko dute. Sabadell banketxean elkartearen izenean zabaldu duten kontuan (ES03 0081 4362 6700 0117 1720). Bestalde, gaztetako argazkiak bidaltzera edo Facebookera igotzera animatuz gero, denek ikusteko moduan ipiniko dituzte.



## 1977. urtean jaiotakoen bazkaria

Urte horretan jaio zirenak urriaren 28an batuko dira, elkarrekin bazkaldu eta eguna jai giroan emateko: 12:30ean Untzagaren elkartu, zapiak banatu eta, argazkia egin eta gero, pintxo-potean ibiliko da taldea, 15:00etan bazkaltzera joan aurretik. Arratsaldean DJ batek saioa eskainiko du. Izena emateko, irailaren 15a baino lehen 70 euro sartu behar da (izen-abizenak zehaztuta) Laboral Kutxako ES323035 0023 970231155319 kontu zenbakian.

## Indalezio Ojanguren argazki-lehiaketa



Martxan dago Indalezio Ojanguren XXX. Argazki Lehiaketa. Edozeinek izango du parte hartzeko aukera, norberaren aukerako gaiari buruzko argazkiekin. Gehienez ere 3 argazki aurkez daitezke zuri-beltzean eta beste 3 koloretan eta lanak Portalean, Kultura sailean entregatu beharko dira. Epea urriaren 5ean amaituko da.

## "Artestura Feministak" lehiaketa

Andretxea kide duen Emakumeen Etxeen Sareak "Artestura Feministak" lehiaketa antolatu du, 18 urtetik gorako emakumeentzat. Artelanak Pegoran aurkeztu beharko dira, irailaren 29ra arte. 400 euroko zortzi sari eta 200 euroko zortzi aipamen banatuko dituzte. Informazio guztia Andretxearen web orrian dago eta, zalantzak argitzeko, Andretxeara joan, 943 70 08 28 telefonora deitu edo andretxea@gmail.com helbidera idatzi daiteke.





IKER ARANBERRI

**Altsasu**

Asko dira gurean justiziaren bidegabekeria Larriak sufritu dituzten euskal herritarrek, eta Tamalez egunotan beste kasu bat ezagutu dugu, Suminez eta saminez bete gaituena: Altsasuko zortzi laguni 375 urteko zigor Soberazkoa eta neurrigabea, 2016. urteko Urrian herri hartako taberna batean izandako Kalapita malapartatu bat dela-eta. Orain ezagutu dugu fiskaltzaren eskaera, Amesgaizto okerreanean ere irudikatzea Kasik ezinezkoa egingo litzaigukeena. Astakeria hau normalizat hartzen duenik bada, Sarri gertatzen den bezala, orain ere Kaiku eta kirtenek ez dute inolaz Aukera galdu iritzia eman eta ondorioztatzeko Terrorismoa dela den-dena, eta horrela Ulertu beharra dagoela gaueko Ordu txikitari izandako liskarra. Rajoyk eta enparauek diote justizia Askea dela, independentea, alegia. Indar politikotik bereizita, berme demokratikoa. Nola sinetsi demokrazian ordea, Mendeku kutsua duen zigor eskaera ikusita? Urrutiko garaietako oihartzuna da hau, Nahiz eta batzuek ikusi nahi ez duten, Tira-biren sasoi atzean utzi dugu, eta Aurrera begiratzeko ordua iritsi da. Iraganetik ikasi, etokizuna bakean eraikiz. Aske nahi ditugu zortziak, etxean, Ron botilaren inguruan dantzan, Izerdia, odola eta negarra ahaztuz, Kide, lagun eta senideekin auzoan, herrian. Entzun ondo gazte, ondo aditu Altsasu: Zuekin gaude beti, ez etsi, zutitu.

**Eibarko kuadrillaren lanak uda osoan ikusgai Debako elizako klaustroan**

Uztailaren 1ean inauguratu zuten "Tentazioak" izeneko arte-erakusketa Debako Santa Maria elizako klaustroan. Azken urteotako "tradizioari" eusten dion erakusketaren XIII. edizioan 18 artistaren lanak egongo dira ikusgai bi hilabete hauetan, abuztuaren 31ra arte. Txoko berezi hori arte-galeria bilakatuko den bi hilabete hauetarako ordutegia honakoa izango da: uztailaren 17:00etatik 19:00etara zabalduko dituzte ateak, eta domeka eta jaiegunetan, aldiz, ordubete gehiago izango dugu sortzaile horien lanak ikusteko, 20:00ak arte. Abuztuaren ordutegi murriztagoa izango du erakusketak: elizaren bisita orduetan soilik gozatu ahal izango dugu-eta.

Hamairugarren edizioa berezia izango da, Gipuzkoako klaustrorik zaharrenaren hormetan 18 artista ezagunen lanak batera zintzilikatuko diren lehen aldia delako. Horietako zenbaitek au-

rreko edizioetan beren artea banaka erakutsi diguten arren, oraingoan elkarrekin egiteko erabakia hartu baitute. "Artista-koadrilla" hori 1977an sortu zen, Laboral Kutxaren Eibarko aretoan Baroja Colleten erakusketaren ondoren Jose Ramon Elorzarena egin zenean. Hasierako bikote hari Asier Laspiur, Vicente Iriondo, Marino Plaza... gehitu zitzaizkien eta, denborarekin, 80. eta 90. hamarkadetan, eta baita geroago ere, beste hainbat eta hainbat artista. Oraingo honetan Vicente Iriondo, Asier Laspiur, Alberto Ibañez, Marina Barrena, Jose Antonio Azpiliqueta, Fernando de Vicente, Keixeta, Jose Ramon Elorza, Ricardo Azkargorta, Iñigo Arregi, Bingen de Pedro, Juan Luis Goikolea, Aitor Etxeberria, Baroja Collet, Aitor Sarasketa, Jose Felix Igartua, Barbara Stammel eta Pello Alberdiren lanak ikusteko aukera izango dugu, eibartarrez betetako zerrandean.

**Dolmenen ibilbidea ezagutzeko doako bisita gidatua egingo da domekan**

Dolmenen Ibilbidearen paisaia eta balio arkeologikoa ezagutzera emateko doako bisita gidatua egingo da datorren domekan. Karakaten hasi, Irukurutzetaraino joan eta berriz Karakatera buelta, guztira 9 kilometroko ibilbidea da. Bisita euskeraz egingo da eta Karakateko aparkalekutik abiatuko da taldea, 10:00etan. Antolatzaileek azaldu dutenez, "han dagoen historiaurreko ondarea dela eta, ibilbideak balio arkeologiko handia du. Izan ere, Neolitoko eta Brontze Aroko tumuluak eta trikuharriak daude, besteak beste. Txangoa 13:30ak aldera amaitzea dago aurreikusita eta parte-hartzaileek gazta, ogia eta sagardoa dastatzeko aukera izango dute". Joan nahi due-

nak 657 79 46 77 telefonora (Naiara) deituta edo info@begi-bistan.com helbidera idatzita eman dezake izena.

Orain arte Dolmenen Ibilbideko bi bisita gidatu egin dituzte eta, diotenez, "harrera bikaina izaten ari dira, irteera bietan taldeak bete egin dira eta". Doako bisita gidatuen programa ekainean aurkeztu zuen Debegesa garapen agentziak, Elgoibar, Soraluze eta Bergarako udalekin elkarlanean. Domekan egingo den irteeraz gain, urriarte arte beste sei bisita gidatu egiteko asmoa daukate: uztailak 30 (gatzelaniaz), abuztuak 6 (euskaraz) eta 20 (ingelesez edo gatzelaniaz), irailak 10 (euskaraz) eta 24 (gatzelaniaz), eta urriak 8 (euskaraz).



**Aire libreko zinea ELGOIBARREN**

36ko gerraren errekreazioa egin zuten iazko irailean Taupadak eta Elgoibar1936 taldeek antolatuta Elgoibarko kaleetan eta herriko beste zenbait kokalekutan. Milizianoen gaua eta tropa faxistak Elgoibarren sartu zirenekoaren errekreazioa egin zituzten, besteak beste, eta egun haietako irudiekin Memoriaren Ganbaratik dokumentala osatu zuten ondoren. Gaur gauean, barixakua, aire libreko zinean eskainiko dute dokumentala, kalegoen plazan, 22:30etik aurrera. Ordubeteko iraupena .




**The Allnighters gaur gauean BERGARAN**

Gaur 22:00etan The Allnighters taldeak (Soulful Rhythm & Blues) kontzertua emango du Bergaran, Espoioian, Berumuga zikloaren barruan. Iñaki "Igu" Garcia, Iñigo Ortiz de Zarate, Ernesto Garcia, Zigor Akixo, Ruper Diez, Ruben Salvador eta Zigor Martinezek osatzen duten taldeak "Everything is Changing" disko berria aurkeztuko du. Sarrera librea.

**Bazkari senegaldarra ERMUAN**

Afrikan nekazaritza sustatzeko eta energia sortzeko Ermuko PAACE elkarteak Afrika-Ermua Kultur Arteko Jardunaldiak antolatu ditu, eta horren harira bihar, zapatua, herri-bazkari senegaldarra izango da Martxoak 8 plazan, 14:00etatik aurrera. Bertan izango dira Jaapo Lyguy eta Mlomp Cultura dantza eta musika taldeak, bazkaria girotzen. Ekitaldia arratsaldean amaituko da, El Malick Band taldearen reggae folk kontzertuaren eskutik. Emanaldia 19:00etan hasiko da.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



**hildakoak**

- Jaione Lazpita Areitio birtxinaga. 83 urte. 2017-VII-5.

**jaiotakoak**

- Omar El Arrass L Arrass. 2017-VII-3.
- Ndiaga Rachid Dieng Mbaye. 2017-VII-7.
- Ayeza Bilal. 2017-VII-8.

**farmaziak**

- Barixakua 14  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Zapatua 15  
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Domeka 16  
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Astelehena 17  
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Martitzena 18  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Eguaztena 19  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 20  
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 21  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

GAUEZ BETI -2017AN-  
**Mandiola** (S. Agustin, 3)

**telefono jakingarriak**

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udalzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak .....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus .....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak .....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

**SUDOKUA**

AURREKOAREN EMATZA

8	6	4	7	1	5	2	9	3
1	5	9	3	6	2	7	4	8
3	7	2	8	9	4	1	6	5
4	9	1	2	8	6	5	3	7
7	3	8	5	4	9	6	1	2
6	2	5	1	7	3	9	8	4
5	8	7	9	3	1	4	2	6
9	4	3	6	2	7	8	5	1
2	1	6	4	5	8	3	7	9

			9		6	1		7
				8				
5		7				3		
	9	4	2				7	
	7				4	8	1	
		1				6		8
				3				
2		3	5		9			

**Barixakua 14****AMAÑAKO JAIK**

**14:45.** Auzoko jubilatuetako bazkaria, Unzaga Plaza hotolean.  
**21:30.** Bertso-afaria, Sustrai Kolina eta Onintza Enbeita bertsolariekin, Amaña SCR elkarte gastronomikoan.

**PUZGARRIAK ETA TAILERRA**

**17:30/19:30.** Jolas erraldoiak (Minigolfa, 4ko ilara, slackline...). El Corte Ingleseko terrazan, 3. pisuan (euria egingo balu, beste egun batean egingo dira).

**SAN KRISTOBALGO JAIK**

**19:00.** Txupinazoa. Jaien hasiera.  
**19:15.** Kalejira, Orkresta taldearekin.  
**19:30.** Haurrentzako jolasak, Fray Martin Malleako parkean. Dardo-txapelketa (16 urtetik beherakoentzat) tortilla, txorizoa, urdaiazpikoa eta gazta; auzoko tabernetan eta Jai Batzordearen barretan.  
**23:15.** Kontzertua: Full Metal Band (Heavy-Rock).  
**00:45.** Kontzertua: Deaf Leopard (Def Leppard taldearen musika).

**KONTZERTUA**

**23:00.** Eibarko Cielito Musika Bandaren gaueko kontzertua. T. Etxebarria kalean.

**Zapatua 15****LAMBRETTA EIBAR**

**10:00.** Lambretta Eibar XIV. Kontzentrazioa. Parte-hartzaileen aurkezpena eta Lambretta motorren erakusketa. Untzaga plazan.  
**11:45.** Kalejira, herrian zehar, eta San Kristobal auzora igoera.  
**13:00.** Azpeitiara irteera. Bazkaria, orogarriak ematea eta opari-zozketa.  
**17:30.** Azpeitiako Trenbidearen Euskal Museora bisita.  
**20:00.** Eibarrera buelta eta "pintxeoa".  
**00:00.** Kontzertua, San Kristobal auzoan.

**SAN KRISTOBALGO JAIK**

**10:30.** Haurrendako marrazki-lehiaketa.  
**11:30.** Haurrendako Moltó motorren kontzentrazio-lasterketa.  
**12:15.** "Sandiada". Aizarnako parkean.  
**12:30.** Aurkezpen-kalejira: Lambretta motorren XIV. Igoera San Kristobalera. Hamaiketako parte-hartzaileentzat. Lambretta motorren erakusketa, San Kristobalgo plazan.  
**18:00.** Igel-toka txapelketa (16 urtetik beherakoentzat).  
**19:00.** Dardo txapelketa, nagusientzat, San Kristobalgo plazan.  
**19:30.** "Callejonada", Mariachi Dominguezekin.  
**21:00.** Herri-afaria, plazoletan.  
**23:00.** Trio Medianoche taldearen emanaldia.  
**00:15.** Kontzertua: Lys Pardo (Juan Pardo, bere aitaren abestiak).  
**02:30.** Txokolate-jana nekaezinentzako.

**Domeka 16****LAMBRETTA EIBAR**

**10:00.** Ibilbide-sorpresa eta agurra.

**SAN KRISTOBALGO JAIK**

**11:00.** Ohe elastikoak eta tirolina. Fray Martin Malleako parkean.  
**12:00.** Hildakoen aldeko meza.  
**12:30.** Paella-txapelketa, plazoletan.  
**13:30.** Luntxa, plazan agertzen diren guztientzat.  
**13:45.** Txapelketaren amaiera. Sariak segidan banatuko dira.  
**17:30.** Haurrei freskagarriak eta goxokiak banatuko zaizkie.  
**18:00.** Gorixoren eskutik, zezentxo eta pony-ak.  
**19:00.** Haurren marrazki-lehiaketan eta jolas ezberdinetan parte hartu dutenentzat sari-banaketa.  
**19:30.** Festa saioa, DJ Arabarekin.  
**20:30.** Errifaren zozketa.  
**22:00.** Jai amaierako traka.

**Eguaztena 19****BEHERAPEN AZOKA**

**10:00/20:00.** Udako Beherapenen Azoka ("Eibar Factoring"). Toribio Etxebarria kalean.

**Eguena 20****BEHERAPEN AZOKA**

**10:00/20:00.** Udako Beherapenen Azoka ("Eibar Factoring"). Toribio Etxebarria kalean.

**PUZGARRIAK ETA TAILERRA**

**17:30/19:30.** Puzgarriak eta umeendako globoflexia tailerra. El Corte Ingleseko terrazan, 3. pisuan (euria egingo balu, beste egun batean egingo dira).

**KALERATZEAK STOP**


**19:00.** Kaleratzeak Stop plataformako bilera irekia. Portalean (3. pisuan).

**Erakusketak****Uztailaren 31ra arte:**

- "DIFFERENT REALITIES", DAVID ARRANZ-EK mugikorrarekin egindako argazki-erakusketa. *(El Corte Inglesean)*
- FERNANDO ALONSOREN argazki-erakusketa. *(El Ambigu tabernan)*
- "EIBARKO ARGAZKI RALLYA 2017" erakusketa. *(Portalea jatetxean)*



**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**




Zorionak, PAUL, gaur 2 urte egiten dozuz-eta. Patxo haundi bat etxeko danon eta, batez be, Elenen partez.




Zorionak, MAIALEN Barrutia, hillaren 19xan 11 urte egingo dozuz-eta. Famelixaren eta, batez be, Ane eta Aizearen partez.




Zorionak, NAIA, haraiñegun 5 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Gaizkaren partez.



Zorionak, NEREA Mallia, domekan 7 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat Eibartik Londresera famelixaren partez.



Zorionak, OLATZ Vicuña, haraiñegun urtiak egin zenduaz-eta. 11 musu potolo famelixaren eta, batez be, Izarren partez.



Zorionak, HARITZ, txapeldun, hillaren 19xan 7 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JARE, gure parkeko sorgiñak bixar 2 urte beteko dittu-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MARKEL, hillaren 11n urtetxua bete zendualako. Musu pillua famelixa guztiaren partez.




Zorionak, IBAI, astelehenian 5 urte egingo dozuz-eta. Laztan haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, ENEKO, hillaren 20xan 7 urte egingo dozuzelako. Musu potolo bat etxekuen partez.



Zorionak, MALEN!, astelehenian urtetxua egin zenduan-eta. Patxo haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, EKHI eta PAULE!!!, zuen 9. eta 7. urtebetetzietan! Izugarri maite zaittuegu!!!



Zorionak, AITOR eta MIKEL!, aste honetan bete dozuez-eta! Ama eta Eleneren partez.



Zorionak, NILE, pitxin, haraiñegun urtetxua bete zendualako. Patxo potolo bat famelixa guztiaren eta, batez be, PELLOren partez.



Zorionak, UXUE (haraiñegun zazpi urte bete zenduaz-eta) eta OINATZ (abuztuaren 9xan lau egingo dozuz). Laztan haundi bat, bikote, etxekuen partez.

**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisu alogagai Jardifeta kalean, 3 logela eta terraza. Igogailua eta kafefakzioarekin. 80.000 eurotan. Tel. 669-682148.  
– Pisu salgai Elgetan. Behe solairuan, 65 m<sup>2</sup>, terraza (20 m<sup>2</sup>) eta garajearekin. Prezio negoziagarria: 139.950 euro. Tel. 644-387643. Maite.

### 1.2. Errentan

– Pisu argitsua alogagai urte osoan Donostiako Antigua auzoan, Ondarreta hondartzatik oso gertu. Tel. 616-816675.  
– Pisu alogagai Deban uda osorako, Itsasbegi kalean. Igerileku, frontoi eta garajearekin. Tel. 635-730841.  
– Pisu hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-649850.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Martxan dagoen ileapaindegia traspasatzen da Juan Gisasola, 8an. Tel. 688-822007 eta 943-530000.

### 3.2. Errentan

– Martxan dagoen taberna alogagai Eibar erdialdean. Tel. 943-820474.  
– Garaje itxia alogagai Asua-Erreka kalean. Tel. 616-959625.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 632-291539.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-838329.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko Eibarren eta inguruan. Tel. 632-061103.  
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, ospitalean gaua pasatzeko, etxean orrazteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Orduka. Tel. 652-587259.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 633-101852.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 642-092294.  
– Bi mutil eskaintzen dira tabernan jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-761423.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 612-278600.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 637-135622.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-236749.  
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko (8 urteko esperientzia) eta garbiketarako egiteko. Tel. 642-650815.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-808125.  
– Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko: igeltsero, pintore, laguntzaile... Tel. 698-438215.  
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-143804.  
– Gizona eskaintzen da kamioia gidatzeko (C lizentzia), etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 603-066671.  
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-628137.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-406654.  
– Neska eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Asteburuetan barne. Tel. 658-458061.  
– Emakumea eskaintzen da gauaz kamarrera edo sukaldari jarduteko eta nagusiak ospitalean zaintzeko. Tel. 671-763558.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Erreferentziak. Tel. 666-197835.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-139806.  
– Neska eskaintzen da arratsalde garbiketa lanak egiteko. Tel. 632-682005.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 644-491651.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 630-254131.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientzia. Tel. 642-959172.  
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-521520.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-175651.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-613245.  
– Gizona eskaintzen da tabernan ontziak garbitzeko eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 616-328060.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-203613.  
– Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Erreferentziak. Tel. 632-026510.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 680-981704.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka. Tel. 658-310620.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak (baita ospitalean ere) edo umeak zaintzeko. Tel. 688-959575.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauaz ere. Orduka. Tel. 631-417922.

– Emakumea eskaintzen da pegorak, soziedadek eta bulegoak garbitzeko. Tel. 622-623216.  
– Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 634-446252.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 632-166357.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Interna. Tel. 612-482203.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauaz eta ospitalean ere. Tel. 631-655390.

## 4.2. Langile bila

– Monitorea behar da Ugan Klubean arratsaldetarako (spinning, aerobic eta abar). Tel. 943-820452 eta uganklub@gmail.com  
– Bi neska behar dira Eibarko taberna batean lan egiteko: bat astelehenetik zapatara arratsaldez eta bestea (sukalderako) barixaku eta zapatuetan. Esperientziarekin. Tel. 655-722967.  
– Dendaria behar da janaridena baten lan egiteko. Bidali curriculum-a Eibarko 21 postakutxara.  
– Kamarera/o behar da Eibarko taberna baterako. Bidali curriculum-a: ofertasempleo.eibar@gmail.com  
– Eibarko Kids and us-ek koordinatzailea behar du 2017-18 ikasturterako. Taldeak bideratu eta zuzentzeko gaitasuna, ingeles maila altua eta euskera eskatzen da. Bidali curriculum-a: eibar@kidsandus.es  
– Ileapaintzailea behar da Eibarko ileapaindegian batean. Lanaldi luzerako. Tel. 653-012186.  
– Kamarera/o euskalduna behar da Arrateko jatetxe batean lan egiteko. Tel. 943-208859 eta vcorada@gmail.com

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Altxariak saltzen ditut. Butaka, idazma-haia komodarekin eta hiru alfombra irlandar: bi ohe ertzerako eta hirugarrena egongelarako. Tel. 665-724697.  
– Bigarren eskuko DBH 3. eta 4. mailako liburuak saltzen ditut. Tel. 653-705096.

### 6.2. Eman

– Katakumeak (beltzak eta gorriak) oparitzen dira. Tel. 643-681509.

### 6.4. Bestelakoak

– Bikotea beharko nuke mintzapraktika egiteko: frantsesa-euskera edo frantsesa-gaztelera. Tel. 658-992412.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

**Gozatu betidanik nahi izan duzun ekipamendu guztiaz.**

Hyundai Tucson Kosmo Edizio Berezia lurrera heldu da sinestezinezko ekipamenduarekin eta beste galaxia bateko 5.550€-rainoko deskontuarekin.

- Horren barne daude:
- Ukimen-pantailaz lagundutako nabigazio-sistema.
  - Abiarazteko botoia eta gertutasun-detektorea dituen giltz adimenduna.
  - Nahigabeko errail aldaketarako sistema eraginkorra.
  - Aparkatzeko atzeko kamera gida eraginkorrekin.
  - Euri, argi eta aparkatzeko sentsorea, aurrean eta atzean.
  - 19 pulgadako aleaziozko uztaiak.
  - Berotu daitezkeen bolantea eta jarlekuak.

Eta betiko moduan:

- 5 urterako bermea, km mugarik gabe.
- 5 urterako laguntza errepedean.
- Gainera, zure Hyundaik ez bazaitu konbentzitzen, itzuli egin dezakezu inolako konpromisorik gabe.

Galdetu baldintza bereziengatik zure kontzesionarioan.

# Hyundai Tucson **KOSMO**

Edizio Berezia



**5.550 €**  
-rainoko deskontua

**DARSO CAR**  
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPIZKOARAKO  
[WWW.DARSO CAR.COM](http://www.darsocar.com)

**ELGOIBAR**  
**OIARTZUN**  
Lintzirin Poligonoa, 1  
943 49 48 30

**Olaso Polig., 17**      **943 74 14 80**  
**BEASAIN**  
Errepide Nazionala, 1  
943 80 40 54

**IRUN**  
Juan Thalamas, 43  
943 63 97 69



Hyundai Tucson Kosmo gama: CO2 emisioak (gr/km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6-7,5.

PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan Tucson 1.7 CRDI 115CV (84,6kW) BD 4X2 KOSMOrentzat, 5.550€-rainoko deskontuarekin. BEZ, garraioa, matrikulazio-zerga, sustapeneko deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimenduko eskaintza barne. Hyundai-ra Aldatu Plana aplikatu daiteke erabilitako auto baten truke, 6 hilabeterekin, Hyundai berri bat erosten duen bezeroaren titulatasunpean. Eskaintza hau aplikagarria da Cinking Solución Flexible produktuekin finantzatzen duten bezero partikularentzat. Santander Consumer EFC S.A.-ren bitartez, 15.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin. Finantziario finantza-erakundeak aztertu eta onartu beharko du. Eskaintza 2017/07/31ra arte da baliozkoa. Ikusten den modeloa: Tucson Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziari lotua. \*Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien km mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala Hyundai-ren sare ofizialak saldutako Hyundai ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaportearen baldintzen arabera. Kontsultatu itzazu eskaintza, mantenimendua eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionarioen sarean edo [www.hyundai.es](http://www.hyundai.es) web-orrian.

## Arrate bezperako

IRAILAK 7 OSTEGUNA  
KANTABRIA 21:00

# BERTSO-AFARIA



ANDONI EGANA



MAHULEN UJABID



SEBASTIAN UIZASO



ONAITZA EMBETTA

## SARRERAK SALGAI

- Hilaren 18tik aurrera ohiko lekuetan:  
Kultu, Sagarbitza eta Kantabria tabernetan (32€)



# IRAZABAL

## clínica dental

**Abuztuan 08:00-15:00**



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Autran Institutoa. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**

**8:00**etatik **22:00**etara

**Zapatuetan:**

**10:00**etatik **14:00**etara

# Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren  
osasunaz arduratzen garelako**

**Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu**

**f** **Facebook**en: Clínica Dental Irazabal **t** **Twitter**en: @Clinicalrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)